

Botere guneak Erdi Aroko Donostian: San Bartolome komentua (XIII. mendetik XVI. mende hasiera arte)

IAGO IRIJOA CORTÉS

Historia eta Ondare Kulturaren Lizentziatua

Laburpena:

Behe Erdi Aroan, giza, ekonomi edota talde politiko ezberdinen arteko erlazio eta lotua oinarriek orduko gizartearen aniztasuna adierazten dute, boterea sortu edo zuten gune ezberdinen arteko erlazio joko batean gaudela adierazten digutelarik. Hiritar munduari dagokionez, botere gune hauek ez ditugu beti udalbatza eta kargu ezberdinetan bakarrik ikusi behar; lanbide eta erlijioarekin erlazonatutakoak ere kontutan hartu behar ditugu. Hala nola, ondorengo lerroetan aztertuko dugun Donostiako San Bartolome komentua. Batetik, hiribildu horretako erreferentzia erlijioso eta soziala bihurtu zelako eta bestetik, gordetzen duen dokumentazioak Donostiako historian sakontzen lagunduko digulako. Hala, komentuarien sorrera, jasotako mesedeak, ondasunen azterketa eta beste botere guneekin izandako erlazioak aztertuko ditugu.

Hitz-gakoak: San Bartolome komentua. Donostia. Erdi Aroa. Botere guneak. Ondasunak. Elite eta oligarkiak.

Resumen:

La sociedad bajomedieval y su imagen, muestran los diversos ámbitos de poder en los que las elites y las oligarquías fijaban su políticas. En el ámbito urbano debemos destacar la idea de que la configuración de espacios de poder no se daba sólo en el ámbito concejil a través del control de las magistraturas.

También contamos con asociaciones laborales o religiosas. A través de estas líneas estudiaremos un caso poco estudiado en el período medieval, a pesar de contar con documentación que permite además el estudio de San Sebastián. Nos referimos al convento de San Bartolomé. Un análisis que tendrá en cuenta las mercedes y privilegios que se le otorgaron, el estudio de sus bienes y patrimonio, así como la relación de dicha comunidad con otros espacios de poder, en especial, el concejo donostiarra.

Palabras clave: Convento de San Bartolomé. San Sebastián. Edad Media. Espacios de poder. Bienes. Elites y oligarquías.

Summary:

In the Middle Ages, the church and its different institutions were one of sources of power at urban and rural society. In the development of elite and oligarchization processes, different groups had its role: urban officers, work asociacionism and, of course, religion institutions. Churches, convents and “cabildos”, for example, had power and were a good opportunity to members of that society (high and low) to play an important role in another space. Even if they're women. In the next lines, we'll study San Sebastian's Saint Bartholomew's convent. Not only because it's an unknown theme, but its medieval sources offers and give us an excellent opportunity to analyse San Sebastian's medieval society and history.

Key words: Saint Bartholomew's convent. San Sebastian. Middle Ages. Heritage and possessions. Elites and oligarchies.

Laburdurak / Abreviaturas / Abbreviations:

AGG-GAO: Archivo General de Gipuzkoa – Gipuzkoako Artxibo Orokorra.

CO MCI: Corregimiento. Mandiola Civiles.

CO LCI: Corregimiento. Lecuona Civiles.

ARChV: Archivo de la Real Chancillería de Valladolid.

AGS. RGS: Archivo General de Simancas. Registro General del Sello.

GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia.

GBN: Gipuzkoako Batzar Nagusiak.

AFA: Arabako Foru Aldundia.

AMSMVA: Archivo de la Marquesa de San Millán y Villalegre (Donostia).

Botere guneak Erdi Aroko Donostian: San Bartolome komentua

Behe Erdi Aroko gizartean, gizartearen eta giza, ekonomi edota talde politiko ezberdinen arteko erlazio eta loturen oinarriek orduko gizartearen aniztasuna adierazten dute: udalbatzak edo kontzejuak, leinuak eta bandoak, lanbide edota langile ezberdinen inguruan sortutako erakundeak (kofradiak), erlijioarekin erlazioatutakoak (elizgizonak, kabilduak, komentuak) eta abar. Azken finean, boterea sortu edo zuten gune ezberdinen arteko erlazio joko batean gaudela adierazten digute, non interes eta estrategia ezberdinak agerian uzten diren botere hori izan eta mantendu, aprobetxatu edo hortik hainbat talde aldentuta mantentzerako garaian.

Lerro hauek, erakunde erlijioso baten azterketa izango dute helburu: Donostiako San Bartolome komentua. Kasu honetan, ikerkuntza eskasak jaso dituen nahiz eta bere dokumentazioaren inguruko artikulua eta lanek kontrakoa adierazi¹. Batetik, Donostia eta inguruetako erreferentzia erlijioso eta soziala bihurtu zelako eta Urumea ondoko hiribilduaren historia ezagutzen lagun diezagukeelako. Eta azken helburu hau, komentuak bere baitan gordetzen duen dokumentazioa nahiko ugaria eta aberatsa delako eta batez ere, informazio horrek paradójikoki, erlijio bizitzari aipamen gutxiago egiten diolako gizarte zibilari baino; ondorioz, donostiarren bizitzaren inguruko datu ugari ematen dizkigu. Eta esan bezala, ikuspegi honetatik aztertuko ditugu komentuaren historiako lehenengo mendeak: sorrera, erregeengandik jasotako mesedeak, ondasunen azterketa, beste botere guneekin izandako erlazioa eta azkenik, mojen analisi prosopografiko bat.

(1) MAISTERRENA, A.; VIVES, G.; AGUINAGALDE, Fco. B. de eta ROLDÁN, J.M.: “Documentación del siglo XIII del monasterio de San Bartolomé del Camino de San Sebastián”. In: *El Fuero de San Sebastián y su época*. Donostia, 1982, Eusko Ikaskuntza, 499-508. orr.; VIVES ALMANDOZ, G.: “Privilegios otorgados por los Reyes Castellanos al Monasterio de San Bartolomé del Camino de San Sebastián durante el siglo XIV”. In: *BEHSS*, 16-17 (I) (1982-1983), 147-175. orr.; IDEM: “Catálogo de documentos de S. Bartolomé de San Sebastián”. In: *BEHSS*, 24 (1990), 305-477. orr.; LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A.: *Colección de Documentos Medievales del Convento de San Bartolomé (1250-1515)*. Donostia, 1995, Eusko-Ikaskuntza. San Bartolomeren inguruko azterketa historiko garaikide bakarrak: FERNÁNDEZ MARTÍN, L.: “Propiedades del monasterio donostiarra de San Bartolomé del Camino”. In: *BEHSS*, 18 (1984), 215-229. orr. eta LEGORBURU FAUS, E.; AYERBE IRIBAR, M.^a R. (zuz.): *El monasterio de San Bartolomé de San Sebastián en Astigarraga. Adaptación de una comunidad femenina de Clausura en la Edad Contemporánea*. Donostia, 1999, Astigarrago Udala.

1. Lehen urratsak: mesedeak eta finkapena

1250. urtea da San Bartolome komentuaen historia dokumentatua inauratzen duena, Aita Santuak, komentua bere babespean hartzeagatik, San Agustinen erregela hartzea agintzen zion mesedearekin. Historia dokumentatua esan dugu, baina horrek ez du esan nahi komentuaen hastapen fisikoa zenik. Hain zuzen ere, dokumentuak monasterioaren sorrerari buruz ezer aipatzen ez duenez, logikoa dirudielako ordura arte San Agustinen erregela jarraitzen ez zuen komentu bat egotea.

Hala, dokumentu honek argi uzten du komentua sortua zegoela, baina horren inguruan inolako aipamenik egin gabe. Nahiz eta momentua argitzeke egon, eta IX. mendean bere sorrera ezartzen duten kondairazko hipotesiak alde batera utziz, badirudi XIII. mendearen hasieran izango zuela San Bartolomek bere abiapuntua; Goñi Gaztambideren arabera, 1244 eta 1250. urte bitartean. Baieztapen hau egiteko, ikertzaile horrek Iruñeako harresietatik kanpo zegoen San Pedro de Rivas monasterioa hartzen du oinarritzat, San Bartolomek bere erregela jarraitzen baitzuen eta iruindar monasterioa 1244. urtean sortua izan zelako. Baliteke ordea, lehenagotik ere emakumezkoen komunitate erlijioso bat, serorategi bat alegia, finkatua egotea eta berau izatea komentuaen oinarria².

Aipatu 1250. urteak, hastapen dokumentala izatearekin batera, nolabaiteko berreraikuntza momentu bat ere ekarri zuen; komentua hartutako maila berriarekin lotua eta horren ondorioz sortutako behar berriei erantzuteko. Halaber, hasierako urte hauek ere, beste arrazoi nagusi bat izango dute berreraikuntza hori aurrera eramateko. Egile ezberdinek testuinguru suntsitzaile batekin erlazionatu baitituzte San Bartolome komentuko hasierako urteak eta, hiribildu askorekin gertatzen den bezala, suteak jarri dituzte arrazoitzat. 1300 urtea baino lehen, agi denez, komentua bi sute pairatu baitzituen³. Argi dago 1280 eta 1294an emandako bi mesede edo pribilegio, testuinguru berreraikitzaile baten aurrean gaudela adierazten digutela. Lehenengoak eraikuntza, argizatze eta mantentzean oinarria bazuen, bigarrena komentuko eliza eta etxeak amai zitezen helburuarekin egin zen⁴. Beraz, San Agustinen erregela hartu ondoren, nolabaiteko eraikitze lanak eman ziren, bai suteen eraginez

(2) LEGORBURU FAUS, E.; AYERBE IRIBAR, M.^a R. (zuz.), aip. lan., 1-3 eta 9. orr.

(3) Horietako bat, dirudienez, piratek eragindakoa. Ikus *Colección de documentos inéditos para la historia de Guipúzcoa*, 2. Donostia, 1959, GFA, 122. orr.

(4) LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A. aip. lan., 2 eta 4. dokumentuak.

egindakoak, baina baita erakunde erlijiosoak zituen berriei erantzuteko eta emandako pribilegio eta mesedeek bultzatuko zuketena.

Eta hauen garrantziaren isla, Juan Ibañez Aizagakoaren pertsonan dugu. Egile batzuek 1302an Aizagak, Iruñeako katedralaren kamara artxidiako-noak, San Bartolomeko komentua berreraikitzeke asmoa agertu eta aurrera atera zuela badiote, hainbat dokumentuk bere garrantzia islatuz, komentua-ren sortzaile bezala aipatzen dute⁵. Ondorioz, ikuspegi orokor batetik, XIV. mendearen atarian komentua berreraikitze prozesu bat ezagutu zuela esan dezakegu.

Beste kasu batzuetan bezala⁶, komentua testuinguru hori aprobetxatuko luke bere egoera finkatzeko. Eta horren isla, ondorengo urteetan gune erlijioso horrek hainbat mesede edo pribilegio jasoko dituela da; zeintzuek bi aldeen interesen arteko bateratzearen ondorio izango lirateke; batetik, komentua-rena bera, finkapen hori bilatuz; eta bestetik, mesedeen emaitza, hauek beraien eskumen eta boterea hedatzeko aprobetxatuko lituzketenak.

Hala, 1298an Bonifazio VIII.a Aita Santuak 1250 urtean emandako pribilegioa baieztatzen bazuen, ondorengo urteetan zehar komentua bere posizioa mantendu eta areagotuko duten abantailak lortuko ditu. 1280an, 40 eguneko indulgentzia emango zitzaion komentua-ren berreraikuntzan lagunduko zuen edonori. Hau izango da San Bartolome buruz dugun bigarren dokumentua. 30 urteko isilune honek bere egoera finkatu ez zela adieraz diezaguke; hain zuzen ere, donostiarrek eta haien gizartean pisu handiena zutenek, garrantzi handiagoa zuten puntu erlijiosoetan beraien begirada jarrita zutela adieraz dezakeena. Hala nola, hiribildu barnean zeuden –eta Donostiak maila berri hori eskuratu baino lehenago sortuak zirenak– Andre Maria eta San Bizente elize-tan; zeintzuek gainera, kabildu bateratua zuten, non kontzejua edo udalbatza bera zen hutsik geratzen ziren benefiziodunak izendatu eta hautatzen zituenak⁷. Ondorioz, udalbatzetan parte hartzen zuten bizilagun eta ofizialek, fisikoki eta

(5) Hala nola, 1302. urtean Iruñeako artzapezkikuak komentuari emandako babes dokumentuan: “magistrum Iohannen Iohannis de Ayçaga, archidiaconorum Camere Pampilonensis, patronum vestri monasterii, rectorem ac etiam fundatorem”.

(6) Argienak hiribilduenak izango liratekeelarik; errege berrien hasierako erregealdiekin edo kalteren baten ondorioz eskutatuko eskumen, pribilegio, sorrera-gutun edo usadio ezberdinen baieztapena.

(7) 1292tik aurrera, Iruñeako gotzaia izango zen izendapena egingo zuena, baina udalbatzak emandako izenen artean hautaketa egin. TENA GARCÍA, M.^a S.: *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera mediev. San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*. Donostia, 1997, Dr. Camino, 286. orr.

sinbolikoki hiribildu barnean zeuden botere guneetan parte hartzeko aukera argiagoa zuten. Ez da harritzekoa beraz, komentu edo monasterioari bultzada emateko, erlijioak bizitza zibilean zuen garrantzia aprobetxatuz, hil ondorengo bizitzan pertsonak hainbat abantaila edo atsedeen lasai bat ziurtatuko luketen neurriak bultzatzea; eta hori ondo adierazten du 1280ko dokumentuak.

Ordutik eta ondorengo hamarkadetan zehar komentuak bere biziko bultzada jasoko zuen. 1290an, Gaztelako errege zen Santxo IV.ak, bere babespean hartuko du, eta bere (berr)eraikuntza amaitzeko, 1294ean 1000 maraitako mesedea emango dio; zeintzuek Donostiako portuaren hamarrenetik hartuko ziren. Pribilegio bera 10 urte beranduago, 1304ko ekainaren 29an, Fernando IVak baieztatuko du⁸.

Mesede honek, Donostiako udalbatzak San Bartolomeren garrantzia begi onez ikusten ez zuela ekar zezakeen; eta hala antzeman daiteke 1294ean bertan hiribilduari eman zitzaion aginduan. Hain zuzen ere, komentuari, beharrezko zituen elikagai eta beste hainbat produkturen horniketa, berari egokien zeritzon lekuan egitea errespetatzeko agintzen zen dokumentuan⁹. Dokumentua bi instituzioen arteko tentsioen isla da eta horiek ekiditeko saiakera, argi uzten baitu bi guneen arteko erlazioek txartze egoeran edo testuinguru tentsiodun batean aurkitzen zirela.

Bultzada instituzionalarekin jarraituz, 1302ko maiatzaren 15ean Iruñeako gotzai zen Miguel Perez Legariakoak komentua bere babespean hartuko du, zituen ondasunen jabetza baieztatuz; ordainetan, mojek, urtero, Eguberri egunean, 6 libra argizari eman beharko zizkioten¹⁰. Ondorengo urteetan, erregeek ere aurreko urteetako pribilegioak baieztatzen jarraituko dute: 1304ko 1000 maraitako mesedearena aipatu badugu, zeina berriz 1318 eta 1328, 1342an egingo den, hornitze lekuarena ere aipatu beharra dago, 1308, 1318 eta 1332. urteetan. Era berean, 1318an Alfontso XI.ak komentuari bere ondasunak mantentzeko ahalmena emango dio, horietan inolako bahiturarik egin ez zezakeelarik, 1332an baieztatu egingo delarik¹¹.

(8) LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 9. dok.

(9) "...nos mandamos [Donostiako udalbatzari] que les dexedes traer pan e vino e sydra e las otras cosas que ovieren mester para mantenença de su monesterio (...) et non lo dexedes de faser por coto nin por postura que ayades entre vos, nin las embarguedes nin las apremiedes por esta sason...". Ibidem, 5. dok.

(10) Ibidem, 7. dok.

(11) 1000 maraitako mesedea: ibidem, 18, 22 eta 26. dok.; hornitze lekuarena, 10, 17 eta 24. dok.; eta ondasunak mantentzeko ahalmena, 19 eta 25. dok.

Ondorioz, XIV. mende erdialdean komentuak finkamen juridiko bat izango du aurreko urteetako mesedeen baieztapena dela eta. Dena den, nahiz eta prozesu horretan erret eta erlijio instantzien aldetik bere biziko laguntza izan, komentuak ere, bere aldetik nolabaiteko lana egin behar zuen. Batetik, inguruko pertsonekin erlazioak eta loturak uztartu eta mantenduz; bestetik, zituen ondasunak eta ondarea handituz.

2. Ondasunak

2.1. Donostiaz kanpoko jabetzak

Gertuen zuen hiribildutik at zeuden jabetzak, bertan zituenak baino lehenago aztertze arrazoirik nagusiena dokumentazioan datza. Hain zuzen ere, komentuaren ondasun ezberdinen inguruan ditugun lehen aipamen zehatzak, Donostia eta bere jurisdikzioetik kanpo zituenen ingurukoak baitira. Hauek izango dira beraz, ikusi eta aztertuko ditugun lehenak.

Aipatu dugu, Donostiak ezar zitzakeen traben aurrean, komentuari eman zitzaion hornitze askatasunaren mesedea. Baliteke beraz, Gipuzkoan sortutako lehen hiribilduak bere inguruetan beste botere gune batek izan zezakeen indartze eta finkapena dela eta jarritako traben aurrean, komentuak errentak lortzeko beste inguru batzuetan bere begirada jartzea. Geroago ikusiko dugunez, badakigu Usurbilen, Aginaga eta Urdaiaga aldean zehazki, ondasunak izango dituela. Baina hasieran beste geografia puntu batean izango du komentuak ondasunak eskuratzeko aukera. Eta ez Donostiatik gertu gainera: Tolosaldean baizik; eta bereziki, Eldua eta Berastegi aldean.

Hasieran, Oria ibaiko hiribilduan bertan izango da komentuak ondasunak eskuratuko dituen lehenengo lekua. 1303. urtean Santxo Santxez Gebarakoak Arrameleko zubi ondoan zuen errota salduko dio komentuari, 13.000 maraigatik:

“la mi casa de las ruedas con so solar e con sos ruedas que se atienen e se afrentuan a la puent de Arratível [sic] e al camino real, con so presa e sos canales e sos calzas e con sos entradas e lidas [sic] e con todas sos correas de agua e de los omes e con todas las pertenencias”.

Tolosako ondasunek, San Bartolomek hango leinu batzuekin izan zitzakeen erlazioen isla izan daiteke. Eta hala dirudi: 9 urteren buruan, 1312an, Tolosako hainbat auzokok Elduan zituzten ondasunak komentuari pasako baitizkiote¹².

(12) Ald. *Colección de documentos inéditos...*, aip. lan., 122-123. orr., non 1302-1304 urteetan, Loizeta (Loistarain?) beheko errotak, Sortarin (Suriola/ Zurriola?) etxe eta sagardiak,

Zehazki, On Santxo Miguel Elduaien kapilauak, bere arreba Gracia Miguel andrea eta honen senar Miguel Martínez Belauntzakoarekin batera, Miguel Santxex Berastegikoa eta María Iñigez (Elduaiengo?) andrea, lehenengo gurasoek, zituzten ondasunak. Hala, 300 soldaten truke, komentuari Elduako errotatik Berrobi eta Eldua artean zegoen errekaraino eta Elduaraxeko “ur nagusitik” Leizarragako bustalzaraino zeuden lur eta sagastiak saldu zizkieten.

Ondasun guzti hauek salmenta bidez egiten direla aipatu behar da, eta ez uzte, opari edo truke gisa. Honek esan nahi du alde batetik, komentuak bazuela nolabaiteko ziurtasuna operazio horiek aurrera egiteko likidezia; alegia, bazituela errentagarriak ziren ondasunak eta diru sarrera nabarmena suposatzen zutenak. Eta argi geratzen da Arramaleko errotak balio izan zuen diruarekin.

Bestetik, leku horietako lurak lortzeko nolabaiteko informazioa eta erreferentzia izan behar zituela ere esan behar dugu. Hauek nola lortu zituen jakitea ez da erraza; Tolosatik Donostiarainoko merkatal bidea aipa daiteke arrazoi bat bezala, alde batetik bestera zebiltzan merkataria, garraiolari eta abarrek eman zitzaizkien berriak aprobetxatuz. Zentzu honetan, ezin ditugu ahaztu XIII eta XIV. mendeetan zehar, merkataria nafarrei eta bereziki iruindarrei, Gipuzkoa eta Donostiako portuaren bidez beraien lanetan aritzeko mese-deak¹³. Baina informazioa lortzeko ikuspegi erlijiosoa ere ezin dugu ahantzi. Honi dagokionez, ez litzateke harrizkoa izango 1301. urtean azaltzen den fray Lope Gizerudiagakoak, Arramaleko eta Santa Katalinako komendadoreak, nolabaiteko eragina izatea¹⁴. Jakinik gainera, komentuak 1303. urterako Arramele zubiaren inguruan ondasunak zituela.

1313ko irailaren 17an, on Sancho Santxex Gebarakoaren emazte eta bere semeek, Gil Lopez Oñazkoa eta Miguel Lopez Iurramendi tolosarra izendatzen zituzten haien prokuradore. Helburua San Bartolomeko komentuari lehenago

...

Arramaleko errotak, Eldua eta Berastegiko nekazari-morroioak, Adios, Gongora, Arrazuri, Berrio, Ainzoain (Antsoain?) eta Beramako lekuetan zergak eta Artazun mahastiak zutela aipatzen den. Gure ustetan, eta dokumentazioak argi uzten duenez, hainbat urtetan lortutako ondasunak dira eta ez dagozkie hiru urte horiei bakarrik.

(13) 1281an iada, Gaztelako Alfontso X.ak merkataria iruindarrei bere erreinuetatik pasatzeko babesa ematen zien. Bost urte geroago, 1286. urtean, Santxo IV.ak merkataria nafarrei Donostiako portuaren bidez merkataritzan aritzeko baimena ematen zien. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; MARTÍNEZ LLORENTE, F.J.: *Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1200-1369)*. Donostia, 1991, GFA-GBN, 39 eta 48. dok. Ikus baita, 58, 59, 83, 160, 255 edo 277. dokumentuak.

(14) *Ibidem*, 82. dok. Laburpena bakarrik aipatzen da.

eginiko salmenta baieztatzea zen, baina berriak egiteko aukera ere agerian geratzen zen. Zehazki, Gipuzkoan zituzten:

“casas solares, collaços, huertos, ma(n)çanedos e tierras, herbados, montes, pastos, aguas, entradas e salidas e con parte de las eglesias e con todas sus pertenencias e drecho quanto el dicho don Sancho Sanchez et yo dona Alduença y ovieremos, que son dichos essos logares de Blastegui e Eldua. Et otrossi la casa e el solar e las ruedas con todos sus drechos que aviemos e son cabo Tolosa de Guipusqoa e tienen a la puente de piedra d’esse logar que se dise la puente d’Arramel, d’una parte et d’otra parte tiene con el camino real que va para Sant Sabastian”.

Aipagarria da oraingoan ez zirela ondasun higiezinak edo geografikoak bakarrik aipatzen: nekazari-morroiei buruz ere hitz egiten baita. Honek erreallitate berezi batekin aurrez-aurre jartzen gaitu; Gipuzkoan, kaparetasun edo aitonsemetza unibertsalaren prozesuaren eraketarekin eta hiribilduen sorrerak ekarri zuen eraldaketa sozialarekin.

Ondorengo urteetan, San Bartolomek leku ezberdinetan zituen ondasunak areagotu egingo dira. 1318. urtean Iruñeako katedraleko artxidiakonoak Berama, Artazkotz, Ainzoin (Antsoain?) eta Lizaranan zituen etxe eta lurren jabetza komentuari eman eta baieztatzen zituen¹⁵.

Urte berean, Gaztelako erregeak bi baieztapen eta mandatu esanguratsu egin zizkion komentuari: horniketa nahi zuten lekuan egiteko mesedea berretsi eta horrekin nolabait erlazionatua, bere ondasunetan bahiturarik ez egiteko pribilegioa ematen zion¹⁶. Esan dugunez, honek udalbatza edo kontzeju batzuek egiten zituzten gehiegikeriekin edo interes talkekin zuzenean erlazionatua dago; dokumentuan Donostiako eta beste leku batzuetako gizonak egiten zizkieten bahituren ondorioz sortutako dokumentua zela aipatzen baita. Eta debekua zehazki Donostiako kontzejuari egiten zitzaion.

Halaber, bigarren dokumentu honek, hiribilduekin izandako erlazioez aparte, ondasunen jabetzaren errealtatearekin aurrez aurre jartzen gaitu. Hain zuzen ere, komentuak horiek lortzeko bi bide aipatzen baitira: batetik, pertsona ezberdinek limosna bezala emandakoak; eta bestetik, moja bakoitzak eta bere familiak komentuan sartzerakoan ematen zuen moja-saria:

“...en commo algunos omes tambien de Sant Savastian commo de otros lugares que los enbargavan los sus heredamientos que ellas avien para su manenimiento del dicho monesterio, *que algunos omes bonos e bonas duennas*

(15) LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 16. dok. Ald. supra, 12. nota.

(16) Ibidem, 17 eta 19. dok.

les dieran en alimosna e que algunas monias dieron al dicho monasterio quando entraron en él (...) E yo, el sobredicho rey don Alfonso (...) por fazer merçet e limosna a la dicha priora e al convento del monesterio sobredicho (...) ellas puedan aver heredamientos para su mantenimiento assi de los que oy día an como de los que les dieran d' aquí a[delante...] algunos omes buenos e bonas duennas en limosna algunas monias que entraren en el dicho monesterio”¹⁷.

Zoritxarrez, garai honetarako ez dugu halako dokumenturik. Ez dakigu beraz, zer ondasun motak ziren (higiezinak, eramangarriak), kontratuaren nondik norakoak edo moja guztiek saria edo dotea ematen zuten ala ez¹⁸, besteak beste. Jakinik gainera, komentura sartzean moja-sarian ematen ziren ondasunak eta dirua asko eta garrantzitsuak izan zitezkeela¹⁹, oso informazio baliagarria galdu dugu XIV eta XV. mendeetarako.

Aurreko adibideek komentuaren garrantzia areagotzen ari zela adierazten digute. Eta urte batzuk geroago San Bartolomek lortuko duen errege agindu batek egoera hau agerian uzten du. Hain zuzen ere, 1330. urtean Tolosako udalbatzari bidalitakoa. Non, azken honek komentuarekin hitzartutako kontratua bete behar zuela adierazten zen: biek amakomunean ustiatzen zituzten erroten ingurukoa. Agindu honek, 1322an Tolosari emandako baimenarekin erlazioa du. Hain zuzen ere, urte hartan Alfontso XIak Tolosako udalbatzari, hiribildu barnean errotak eraikitzeko baimena ematen baitzion; zeintzuek errege errentetatik libre egongo ziren²⁰. Tolosako udalbatzak (zeinak, bestalde, eraikuntza egiten hasia zen) nafarrek egin zitzaizketen erasoetan jartzen zuen bere arrazoirik nagusia. Baina, bere garapena eta errentak ziurtatzeko, berak bakarrik kudeatu zitzaizketen errota nahi izatea ere, ez dugu ahaztu behar.

Hipotesi bezala, Arramele inguruan zeuden errota lortzerakoan, komentuak hiribilduarekin akordio bat sinatu zuela pentsa dezakegu; akordioaren nondik norakoak 1330eko dokumentuan adierazten direnak direlarik, nahiz eta hitzarmena noiz sinatu zen jakin ez. Baina argi dirudi Tolosako udalbatzak,

(17) Ibidem, 19. dok.

(18) Ald. SOLÓRZANO TELECHEA, J.A.: *Santander en la Edad Media. Patrimonio, partenesco y poder*. Santander, 2002, Universidad de Cantabria-Ayuntamiento de Torrelavega, 414. orr.

(19) Ald. ibidem, 221. orr. eta LANZAGORTA, M.^a J. eta MOLERO, M.^a A.: *Los Lazarraga y el convento de Bidaurreta (siglos XVI-XVIII): un linaje en la historia de Oñate*. Donostia, 1999, Eusko Ikaskuntza – Oñatiko Udala, 97-98. orr. eta bereziki, 106-112. Ikus LEGORBURU FAUS, E. eta AYERBE IRIBAR, M.^a R. (zuz.), aip. lan., 42. orr., non XVIII. menderako, mojen doteak komentuaren diru sarrerarik nabarmenena zirela adierazten duten.

(20) MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; MARTÍNEZ LLORENTE, F.J., aip. lan., 143. dok.

1322an lortutako baimenari atxikiz, ondorengo urteetan beste errota batzuk eraikitzea erabaki zuela, zeintzuek mojen errenten aurka joko zuten eta aldiz, udalbatzaren onerako; hiribildukoak izango baitziren eta lehen, ustiaketa amankomuna zuten errotetara joaten ziren Tolosako auzokoek, orain eraiki berriak zirenetara joatera behartuak egongo ziren. Hipotesi hau argia dela uste dugu mojek, Tolosak, sinatutakoaren aurka, “agora nueuamente otra rrueda de vuestro en esa agua y cabo la villa contra su voluntat [mojena]” eraikia zutela adierazten baitzuten. Berriz eraikitzearen aipamen horrek, Tolosak sinatutakoarekin ados ez zegoela islatzen du; edo behintzat, bere beharrei aurre egiteko akordioa ez zela onuragarria, interesak hasierako kontratuan zeudenekin aldatu zirela, alegia. Erregeak Tolosari hitzarmena betetzeko eskatzen zion.

Halaber, Tolosako inguruez aparte, komentuk bazituen Donostiatik kanpo zeuden beste jabetza batzuk. Batetik, Aginagan zegoen Gironda nasaren ustiaketa zuen. Berau, 1508 eta 1512ko dokumentazioaren arabera, aurreko 60 bat urtetatik Urdaigako orube eta leinuko jaunekin eta Juan Perez Zuazte/Zuasti zenarekin batera amankomunean ustiatzen zuen²¹. Lehenagotik ordea, 1410. urtetik gutxienez, komentuk Aginagan bertan beste ondasun batzuk ere bazituela badakigu eta horien artean baliteke orain aipatu duguna egotea. Urte hartan jarraitzen ari zen Juan Alfonso de Salcedoren aurkako auzia “super occupatione, distractione et possessione percipiendi fructus, redditus et proventus bonorum, rerum [...]um et pertinentiarum pertinentium in Gui[puscoa], in terra de Aguinaga eisdem...” buruz baitzen²².

(21) “...pongo e digo que el dicho conbento, priora e monjas, mis partes, han tenido e poseydo con las dichas doña Maria Miguelez e doña Leonor [de Urdayaga] e con sus predecesores, señores e dueños que fueron del dicho solar, e con Juan Perez de Çuazte, defuncto, en comunion e “pro yndibiso”, por suyo e como suyo, con buenos e justos titulos [...] de dos y tres e diez e veynte e quarenta e sesenta e [mas años e en tant]o tiempo (...), una naça de p[esca]r salmones y otros pescados en el rio e braço de mar llamado Oria, en el lugar do llaman de la naça de la Gironda, que es entre las naças llamada(s) Çerragarrieta e de Yatuspe, que son anbas de la tierra de Aguinaga...”. LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 83. dok. Auzia, dokumentazioan ageri denez Cristóbal Vázquez de Acuña korrejidorearen aurrean hasi zen, beraz, 1507-1509. urte inguruan. Fernández Martínek, errege betearazlea irakurtzearen ondorioz, 1508an hasi zela dio. Ikus FERNÁNDEZ MARTÍN, L., aip. lan., 225-229. orr., bereziki, 227. orr. Acuñaeren lehenengo korrejimendurako: IRIJOA CORTÉS, I.: *Gipuzkoa, “so color de Comunidad”*. *Conflicto político y constitución provincial a inicios del siglo XVI*. Donostia, 2006, GFA, 128-129. orr. (www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/bekak-becas04.pdf) eta ORELLA UNZUE, J.L.: *Instituciones de Gipuzkoa y oficiales reales en la Provincia (1491-1530)*. Donostia, 1995, GFA, 296-297. orr.

(22) LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 47. dok. Balieteke, jabetza horien artean Tolosako Beheko Errota errotaren inguruan ere nolabaiteko liskarrak iza...

Beste datu batzuek ere, Usurbil inguruan komentuak beste ondasun edo interes batzuk bazituela adierazten digute²³. 1470. urtean azken hiribildu hone-tako auzoko ziren Miguel Otxoa de Hoa, Juango bere semea, Juan Otxoa eta Grazia de Galardik komentuaren aldeko obligazio gutuna ezartzen zuten beraien ondasun eta pertsonen gainean, San Bartolomek izan zitzakeen auzien aurrean. Obligazio hau, aurretik bi aldeen artean sinatutako beste obligazio gutun batean zuen oinarria. Non komentuak pertsona horiek defendatuko zituen. Ez litzateke harritzekoa izango lehenengo dokumentuak amankomunean zituzten lur, errota edo beste ondasunen ondorioa izatea; agian, komentuak sinatutako momentu horretan eskuratutakoak. Hala, oraingo obligazio gutunean, usurbildar horiek komentuaren errentak eta ondasunak kobratzeko behartzen ziren:

“...dixieron que se obligavan e obligaron, en uno con todos los dichos sus bienes, de a todo su poder les faser cobrar e recavdar todas qualesquier rentas, cosas e bienes al dicho monesterio e conbento, en qualquier manera pertenesçientes e de al dicho conbento e monesterio en todo el tiempo del mundo para iamas, de conosçer sus rentas e derechos que en qualquier o qualesquier lugares e tierras tengan o tobieren de aquí adelante...”.

Agerian uzten da kontraprestazio edo ordain sistema baten aurrean gaudela. Hain zuzen ere, komentuak, bere eragina aprobetxatuz, pertsona eta familiariekin sortutako lortura eta erlazioen bitartez, bereak ziren lurak eta errentak hobeto ustiatzeko modua. Ildo honetatik jarraituz, baliteke Iruñeako katedralak emandako ondasunen artean mota horietakoak egotea. Beraz, egoera berriaren aurrean, inguruko familia eta leinuekin uztartutako harremanen areagotzea ikus daiteke, ondasun berri horien ustiaketa eta babesa ziurtatzeko asmoa agertu eta aurrera eramateko saiakera izan daitekeelarik.

2.2. Donostia eta bere inguruetakako ondasunak

San Bartolome komentua Donostiako harresiek inguratzen zuten etxe eta beraien kanpokaldean zeuden portuko azpiegitura, etxola edo etxeetatik aldentuta zegoen. Baina Donostiari zegozkion lurretan. Ondorioz, jakina da komentuak hasieratik hiribildu horren inguruan lurak, mahastiak, sagardiak,

...
tea. Gogoratu behar baitugu errota hau, Antxon Agirre Sorondorentzat, 1322. urtean aipatzen zen berdina, Salcedorena zela eta 1411ko otsailaren 2an Tolosako hiribilduak erosi ziola. Ikus AGUIRRE SORONDO, A.: *Tratado de molinología (los molinos de Guipúzcoa)*. Donostia, 1988, Eusko Ikaskuntza, 758. orr., iturririk aipatu gabe.

(23) San Bartolomeko bilduman 1484ko salmenta gutunaren laburpenean, lurak Usurbilen zeudela adierazten badu ere, dokumentuan argi ikus daiteke hiribildu hartarako bidean zegoela. Ikus infra. 21. orr.

basoak eta abar izan behar zituela. Donostiako udalbatzari bahituen inguruan bidalitako 1318ko dokumentuak hori adierazten digu eta nahiz eta erlazio zehatzik izan ez, 1250eko dokumentuan eta geroago, 1298an Bonifazio VIII.a Aita Santuak bere babespean hartu zuenenekoan, mota horietako ondasunak aipatzen dira²⁴. Egile batzuek, 1304. urteko martxoaren 16an eginiko dokumentu batean, non San Bartolomeko komunitateak Iruñeako kabildu eta gotzainaren pean egoteko hitzarmena egiten zuen, beraien hondasunen baieztapena egiten zela zioten. Bertan Donostiako inguruari zegozkionak Loistarain Beheko errota, etxeak eta sagardia zirelarik²⁵.

Aipamen honetaz aparte, 1346. urtean komentuarien alde eman zen salmenta gutunera arte ez dugu jabetza horien aipamen zehatzik. Orduko abuztuan, 1300 marairen truke, Loistarainen (gaur egun, Berio inguruan), zegoen Buñoako estalita eta estali gabeko etxea salduko zaizkio, hari zegozkion lur eta sagardiekin batera²⁶. Aipatzen diren mugek argi uzten badituzte Loistarain eta Buñoatarren jabegoak, komentuak berak zonalde horretan lehenagotik hainbat lur zituela ere adierazten da, jabetza horiek aipatu 1304 urtetik gutxienez etor zitezkelarik²⁷.

(24) Nahiz eta jakin aipamen orokorrak direla: "...quibus hec propriis duximus exprimendo vocabulis locum ipsum in quo prefatum monasterium situm est cum omnibus pertinentiis suis, cum terris, pratis, vineis nemoribus usuagiis et pascuis, in bosco et plano, in aquis et molendinis, in viis et semitis, cum omnibus aliis libertatibus et immunitatibus suis". San Bartolome, 6. dok. Ald. San Bartolomé, 1. go dok.: "...gozés con toda firmeza para vos y para las que os sucedieren y liberalmente y sin contradicción alguna en lo cual nos pareció exprimir y declarar con propios términos al mismo puerto donde está situada la dicha yglesia con todos los pertenecientes a ella así prados, viñas, tierras, jarales, pastos, bosques y campos llanos, aguas y molinos y todas las demás libertades e inmunidades suyas" (orjinalaren gaztelaniazko kopia). Ald. GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: *Santa María de Irache: Expansión y crisis de un señorío monástico navarro en la Edad Media (958-1537)*. Bilbao, 1989, EHU-UPV, 48-50. orr., non Iratxeri emandako babes gutunean ondasun batzuk zehazten ziren.

(25) Eta San Bartolomeko herietxean emandakoa. Zoritxarrez, ez dago komentuko artxi-boan eta beraz, ezin dugu egiaztapenik egin. Dokumentua Caminok aipatzen du. Ikus CAMINO Y ORELLA, J.A.: *Historia civil-diplomático-eclesiástica anciana y moderna de la ciudad de San Sebastián: con varias noticias particulares pertenecientes a la provincia de Guipúzcoa. Introducción, notas y epílogo por Fausto Arocena*. Donostia, 1963, Ayuntamiento de San Sebastián, 193. orr. Halaber, bertan, Arrameleko errota, Eldua eta Berastegiko nekazariak eta aipatu nafar herrietan beste hainbat ondasun aipatzen dira.

(26) Salmenta Martin Martínez Buñoakoak, bere seme ziren Juan Martínez eta Martín Martínezek, eta azken honen emazte zen María Miguelez de Sagastizar andreak egiten zuten. Orube, etxe eta horri lotutako ondasunetatik Juan Martíni zegokiona ezik. LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 29. dok.

(27) Komentuari dagokienez, lur horiek mugatzen zuten zati bat "las tierras de la dicha orden" ziren. Bestalde, Antiguako San Sebastiango elizak zituenak ere aipatzen dira: "...e de la otra parte, a las tierras de la iglesia de Sant Savastian". Ibidem.

Beraz, ondasunen lorpenetan erlijioaren pisua areagotzen ari delaren isla ikus daiteke. Bereziki, inguruko lurretan bizi zen jendeak komentuekiko zuena.

Loistaraindarraren erlazioa XIII. mende amaieratik edo XIV. mende hasieratik etor bazitekeen, ondorengo urteetan areagotuko da; 1360ko irailan Ramon de Siens eta Martin Galbarangoak, Juan de Loistarain zenduaren izenean, honek bere testamentuan utzitakoa betez, komentuari mendi zati bat 350 marraigatik salduko baitiote. Hain zuzen ere, komentuaeren ondasunek inguratzen zutena. Dirua ordaintzeko ziurtasuna emanaz, San Bartolomeko priora zen Pelegriana Getariakoak, fidatzaile bezala Domingo de Siens (Ramonen ahai-dea?) eta Juan de Lizardi izendatzen zituen. Argi dago 1360ko salmenta honek adierazten duena: komentua zonalde batean zituen ondasunen ondoan zeuden beste hainbat lur eskuratzeko eta batzeko politika. Zeinak inguruko jabeekin nolabaiteko erlazioen finkapenak eta erlijioaren pisuak, pertsona horiengan hil ondorengo bizitzan onurak lortzeko truke bat oinarri izango zukeen.

Bi urte beranduago, 1362an, komentuari Zurriolako errotaren zortzirena ematen zitzaion. Aurreko bi kasuetan bezala, testamentu batean ezarritakoa betez. Zehazki, on Arnaut Bonazakoak berean ezarritako klausula baten bidez: komentuko mojek bere arimarengatik, urtero 4 meza errezatzearen truke. Loistaraindarraren erlazioa ikusi ahal izan dugun bezala, hemen ere argia da beste donostiar familia eta leinu batzuek komentuekin zutena. Komentuko serora Juliana Bonazakoa baitzen, Arnauten alaba²⁸. Eta hau areagotua ikus daiteke 1393an, noiz sor Juliana berak, komentuko priora bihurtuta eta Martin Bonazakoaren testamentu-betearazle zela, Juan de Bermeo eta Domenja Pallaskoari Martinena zen etxea saltzen zienean²⁹. Hau da, komentuko kideek, familia loturak eta hauen eragina dela eta, ondasun ezberdinak kudeatu zitzaizketen. Berehala ikus daiteke egoera honen garrantzia: komentuko kideek kudeaketa hori egiteak, erakunde erlijio-soaren onurarako izan baitzitekeen. Hau da, zenduak emandako baldintzak betez, nolabaiteko errentak lortzeko aukera eskaini zezakeen.

Bestalde, dokumentu honek, aipatzen diren ondasunaren historiari bide berri bat irekiko dio. Komentua Zurriolako errotaren jabetzaren osotasuna izatea lortuko baitu XVI. mende hasieran³⁰.

(28) *Ibidem*, 32. dok.

(29) *Ibidem*, 37 dok. Ald. VIVES ALMANDOZ, G.: "Catálogo...", aip. lan., 305-477. orr., bereziki 386-387. orr., non egileak hainbat salmenta gutunen data nahasten dituen. Guk argitaratutako dokumentuena jarraitu dugu, aurreko egileak emandako datu batzuekin bat datorrelako (berak adierazitakoaren kontra, beraz).

(30) Lehenago lortu ez bazuen. Ikus FERNÁNDEZ MARTÍN, L., aip. lan., 221. orr.

Lur eta ondasun lorpenaren hiru kasu hauetan, hainbat aldiz errepikatu dugun bezala, erlijioaren pisua eta garrantzia ondorioztatu dezakegu, testamentuetan ezarritako baldintzen ondorio baitira. 1346ko dokumentuak gainera, mojek Buñoatarrei eman behar zizkieten 1300 maraietatik, 200 komentuaren aldeko legatu batetik zetozen. Zehazki, Maria Juan Buñoaren eta beste ondasunak utzi zizkieten pertsonen arimengatik errezzatekoak zirenak³¹. Argia da beraz, erlijioak zekartzan onuren artean, horren elizkoiak ez ziren helburuak lortzeko ere balio zutela: ondasunak eta errentak hain zuzen ere.

Bestetik, horien geografia eta kokapena dela eta, badirudi oraingoz komentuak bere inguruan dituen lurak lortzeari ematen diola garrantzia eta batez ere, hiribildutik kanpo edo urruti dauden zonaldeetan ondasunak lortzeko aukerari lehentasuna ematen diola³².

XIV. mende amaieran eta XV. lehengo erdialdean San Bartolome komentuko ondasun politikan dokumenturik adierazgarriak izango ditugu: 1393, 1394, 1427, 1436 eta 1448 urteetan, hain zuzen ere. 1393ko informazioa ondasun batzuen inguruan sortutako auzi bati esker dugu. Orduan, komentuak Andre Maria eta San Bizente elizetako benefiziadun zen on Juan Berramendikoa eta bere arreba zen Elbira andrearekin sortutakoa. Iribar edo Yeribar etxetik³³ gertu zeuden 5 haritz eta zelaiaren jabetzaren inguruko auzia zen. Juan Merclin atzerri-ofizialak (“oficial foráneo”) emandako epaiak ondasunak banatu zituen: haritzak komentuenak zirela esaten zuen bitartean, zelaia on Juan eta Elbira andrearena zirela zioen, Yeribar etxeko jabea eta bere anaiarenak, hain zuzen ere.

1394. urtean komentuak salmenta bat egin zuen. 6.000 marairen truke, Martin Elizalde donostiarrari San Bartolometik gertu zeuden mahasti eta baratza bat salduko dizkio, komentuko berreraikuntza lanak aurrera egiteko beharrezkoa zuten dirua lortzeko helburuarekin³⁴.

(31) “que nos avemos reçibido de vos los dosientos maravedis que dexamos e dimos a la dicha orden por las almas de la dicha defunta e de los otros que los dichos bienes nos dexaron...”. LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 29. dok.

(32) Ald. FERNÁNDEZ CONDE, Fco. J.: “Renacimiento urbano y religiosidad. Los cabilos de canónigos”. In: *Las sociedades urbanas en la España medieval. XXIX Congreso de Estudios Medievales, Estella 15-19 julio 2002*. Iruñea, 2003, Gobierno de Navarra, 331-352. orr.

(33) Ziurrenik, Yeribar etxe hau 1512ko petxuan azaltzen den Juan de Iribar izenarekin azaltzen dena zen. Ikus FERNÁNDEZ ANTUÑA, C.M.: “Las cuentas del concejo donostiarra en 1512”. In: *BEHSS*, 38 (2004), 11-76. orr.

(34) LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 41. dok.

1427an aldiz, Marina de Cubas andreak komentuari ereiteko zelai (“campo labradío”) bat salduko dio, bera eta bere semeak aurrera eramateko duen beharrari aurre egiteko. Zelaia:

“se tiene las tres partes a las tierras e camino de la casa e caseria llamada Marcotegui, que es de donna Urrea de Massorrayn e de sus herederos, e de la parte de suso al arroyo e agua que corre a *los molinos de Balentegui, que son del dicho conbento e monesterio*, todo quanto que la dicha tierra campo labradio es de ancho e de luengo, de alto e de baxo (...) con todos los robres e otros quales quier arboles que en ella son”.

Hemen ere, argi geratzen da komentuak nolabaiteko politika pilaizaile bat eramaten duela, inguruan lurak baitzituen; gerora, XVI. mende hasieran mantenduko dituenak. Kasu honetan, Lugaritzetik gertu zegoen Balentegiko errota. Baina ordutik beste jabego batzuk ere mantenduko zituen. Hala uzten da agerian 1501 eta 1503. urteetan, Pedro Markotegirekin Balentegiko errotara iristen zen uraren inguruko auzian³⁵; edota urte batzuk lehenago, Markotegi berarekin sagardi batetik pasatzerako eskumen eta eskubideen inguruan izandakoan³⁶. Beste informazio batzuen arabera, oraindik ere Balentegi XVIII. mendean komentuarien eskuetan zegoela adierazten digute³⁷.

1448an aldiz, 550 florinengatik, Esteban Landrigner-ek Molinao edo Altzako errota berriaren erdia salduko dio komentuari³⁸. Inguru horrek momentu horretan inbertsio eta lurak lortzeko politika batek zeukan garrantziaren isla badu ere, ezin dugu ahaztu dokumentuak berak zonalde horretan monasterioak aurreko urteetatik nolabaiteko interesa zuela adierazten duela. Hain zuzen ere, 1448ko salmentak komentuari errotaren jabetza bere osotasunean izatea ekarriko baitio; aurretik Esteban Landrignerrena ez zen beste erdia San Bartolomerena zelako, hain zuzen ere. Jabetza bere osotasunean eskuratzeak, komentuari ekonomikoki diru sarrera ekarriko zion eta baita “oinarrizko elikagai baten pro-

(35) *Ibidem*, 78-80. dok.

(36) 1494. urtean, auzia Iruñeako elizbarrutiko epaimahaira apelazio gisa eman zena. *Ibidem*, 73 eta 74. dok.

(37) LEGORBURU FAUS, E. eta AYERBE IRIBAR, M.^a R. (zuz.), aip. cit., 43. orr. Ald. *Ibidem*, 43. orr., 127. nota. Non, harrigarria bada ere, egile hauek Balentegiri buruz duten lehengo berria XVI. mende hasierakoa dela adierazten duten eta beraiek erabilitako dokumentazioan errotrari buruzko berririk ez dutela adierazten duten.

(38) *Ibidem*, 55. dok. Errotari buruz, LANDA IJURKO, I. eta ETXEBESTE GONZALEZ, J.C.: “Alta XIV. eta XV. mendeetan”. In: *Alta, hautsa kenduz*, III (1996), 63-65. orr. (51-71).

dukzioa” kontrolatzea. Hain zuzen ere, nekazariak kontrolpean izateko, zituen ondasunak ustiatzeko eta errentak lortzeko aukera handiago bat³⁹.

Baina dokumentu guzti hauen artean, adierazgarriena 1436. urtekoa da. Orduan Iruñeako katedraleko San Miguel ospitaleak eta komentuak truke bat egin baitzuten. San Bartolomek Nafarroan zituen ondasunak ospitaleari ematen zizkion eta ospitaleak aldiz, Hernanin eta Gipuzkoan zehar zituenak⁴⁰. Zoritxarrez truke idatzian ez da katedralaren jabetzen aipamen zehatzik egiten⁴¹, baina Hernaniren aipamenak Donostiarako bidean eta ondorioz, San Bartolometik gertu zeuden ondasun eta lurretan pentsatzera eraman gaitzake. Halaber, truke honek jabetzen ustiaketaren inguruan aipamen batzuk egitera garamatza: urruti zeuden jabetzak gertuago zeuden batzuekin elkartrukatzek, ondasun horiek eman zitzaizketen onurak lehenago jasotzea eta beraiengan kontrol handiagoa ezartzea baitzekarren. Azken finean, ondasunen berrantolaketa honek, ondare guzti horren kudeaketa hobe bilatuko luke, errentagarritasun handiago bat lortuz. Baliteke gainera, truke hau egiteko arrazoï bat komentuak urruti zituen lurren ustiaketa utzita zegoela izatea⁴². Esan dugun bezala, egini trukearekin San Bartolomeri (eta Iruñeako San Miguel ospitaleari) bere inguruan edo gertu zituen lurak lortu eta errenta handiagoak izateko aukera ekarriko lioke.

XV. mende amaieran, 1484. urtean, jurisdikzio aldatetaren oso adibide esanguratsua dugu. Orduan, Juan Guarnizokoak udalbatzak enkante publikoan saltzeko eta berarenak ziren lurak lortu zituen; hilabete batzuk beranduago komentuari saldu zizkionak⁴³. Lurak honako hauek ziren:

“...tierras con las arboledas (...) que el dicho conçeio ha e tiene e posee en iuridiçion de la dicha villa (...) llamadas Veroyçarrapar, que se tienen por la una parte a *tierras mançanales del molino de Valentegui*, e por de parte de baxo a la mar e agoa salada e por de parte de arriba a las tierras de la casa de Çuaçu e al camino que van para Usurvill, e otras llamadas (de) [Martin de Voniestegui], todo quanto el dicho conçeio ha e debe e puede aver con sus pertençias...”.

(39) Ibidem, 65. orr.; FERNANDEZ CONDE, Fco. J., aip. lan., 331-332. orr.

(40) LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 52-53 dok.

(41) “...todas aquellas tierras et heredades que eil e la dicha su hospitalia han et les pertenesçen aver en el logar et terminos de Hernani et en toda la provincia de Guipuzcoa...”.

(42) Ald. GARCÍA FERNÁNDEZ, E., aip. lan., 45, 48, 51 eta 53. orr.

(43) Ikus LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 63 eta 64. dok.

Argi dago Juanek eskuratutako lurak eta ondoren komentuari emandakoak, azken honen politika pilatzailea agerian uzten dutela. Hain zuzen ere, Balentegiko errotaren ondoan zeuden baitziren⁴⁴; komentuarenak zirenak eta ziurrenik, inguruko nekazariak ustiatuko zituztenak.

Dokumentazioak beste bi ondasunen inguruan ere datuak ematen ditu. 1506 urteko auzi batek, komentuak Domingo Martinez Berrasetoakoaren aitarengandik, Zurriolako errotaren ondoan zeuden 2 edo 3 mahasti zati jaso zituela adierazten du⁴⁵; orain ere, komentuak, zituen jabetzen inguruan zeuden beste hainbat ondasun eskuratzeko politika agerian uzten da. Bestetik lehen aipatu badugu 1448tik baino lehenago Molinao errotaren jabetzan partaidetza zuela, badakigu ondoren ere, 1517. urte inguruan, Pasaiaruntz zihoan galtzadetan lur eta “urak” zituela⁴⁶.

Azkenik, Donostiako ondasunen inguruan beste sailkapen bat ezarri behar dugu: hiribildu barnean zituen ala ez jakitea. Orain arte gehienak Artiga-Antigua inguruan eta San Bartolometik gertu zeuden lurak direla ikusi ditugu. Baina XIV. mende amaiera eta XV. mende hasierako zentso gutunetan (geroago ikusiko ditugunak) hiribildu barnean nolabaiteko ondasunak lortu edo horien eskuraztea aurrera eramateko prozesua ikus daiteke. Hiri munduko negozio eta ondasun higiezinak, nolabait merkataria leinuek komentuarekin zuten erlaziora ekarri behar gaituzte. Horiek beraien ondasunak komentuari pasatzen baitzizkioten eta beraz, errentak lortzeko sistemengarapen aurrean gaudela adierazten digulako; kontutan izanik gainera ikuspegi horretatik Donostiak Probintzia mailan zuen garrantzia, San Bartolomek hiribildu barnean⁴⁷ norainoko inbertsioa egiten zuen jakitea garrantzitsua deritzogu. Jakinik dinamismo ekonomiko, hori hasiera, batean hiribilduko barruko orubeen jabetzan zegoela. Zoritxarrez ez dugu komentuak hiribildu barnean izan zitzakeen ondasunen (orube, etxe, baratza, labe eta abarren) inguruko datu askorik⁴⁸.

XVI. mende hasierako auzi batek, Donostia 1489. urtean erre zenean, komentuak ordurako 2 etxe zituela adierazten digu, zeintzuk sutean erre egin ziren. Hala ere, nahiz eta suntsituak izan, orube eta zoru horien jabetza komen-

(44) “Veroyçarrapar” leku izenak baliteke “Berio Zahar”ean jatorria izatea, nahiz eta halako toponimorik identifikatua ez izan. Hala, Berio-Antigua-Ibaeta inguruan ondasunak lortzeko aukera izatearen hipotesia finkatuko litzateke.

(45) FERNANDEZ MARTÍN, L., aip. lan., 221.

(46) AGG-GAO CO LCI 4.

(47) Edo harresitik kanpo baina ondoan zeuden lur, etxola eta azpiegitura ezberdinetan.

(48) Ald. FERNÁNDEZ CONDE, Fco. J., aip. lan.

tuarena izaten jarraitzen zuen. Behin sutea igarota eta testuinguru berreraikitzaile batean, orube horietan etxeak eraikitzeko, San Bartolomek, Petrico zapatagileari eta Pedro de Atxega harakinari alokatu egin zizkion.

Beste datu batzuek, komentuak 1492an Andre Maria kalean zegoen orube baten uztea egin zuela adierazten digute. Ez dakigu ordea, bi aurrekoetako bat zen ala ez; dakiguna, hau ere 1489ko sutean erre egin zela da. Uzte edo zesioa 13 florinetako zentso baten truke egin zen. Zentsoak indarra izango zuen Ramus de Estor eta bere emazte zen Maria de Estiron andreak orubean etxea eraikiko zutenetik aurrera; zentsoak horretara behartzen zituelarik⁴⁹.

Monasterioak donostiarrekin izandako erlazioek eta erlijioaren pisuak, 1515. urtetik gutxienez, Pedro Arratzaingoa eta bere bigarren emaztea zen Maria Perez Torranokoaren oinordekoa izatea suposatuko du eta beraz, haiek utzitako ondasunen jabe izatea⁵⁰. Eta baliteke orduko jabetzen artean, Donostiako hareatzen, portu txikitik gertu zegoen etxola bat izatea, Pedrok 1503an bere anaia Domingok eginiko salmentaren bidez eskuratutakoa⁵¹. Badakigu behintzat, ondasunen artean Enbeltran kalean kokatutako etxe baten erdia, Pedrorena izan zen orube eta enparantza bat, Anotean zegoen lur eta sagardi bat, zegoen etxolaren erdiarekin eta hainbat kupel zeudela, besteak beste.

Bestetik, eta aipamen hutsa bada ere (dokumentazioak datu gehiagorik ez baitu ematen), badakigu orube hauez aparte, 1517. urte inguruan, Puyuelo kalean mahasti bat zuela; eta beste mahasti bat Saliasekoaren ondoan⁵².

2.3. Jabetzak: motak, lortze moduak eta ustiaketa

Aipatu dokumentazioak jabetza ezberdinen aurrean gaudela argi adierazten du. Baina San Bartolomeko dokumentazioak ez du informazio handiegirik ematen eta gainera, ia hiru mendeen artean jazotako garapena dela eta, zaila da “argazki” tinko bat ematea. Ondorioz, gure helburua ondasun horiek sai-

(49) “no seamos tenidos nin obligados de pagar el dicho incenso durante el dicho suelo de casa estobiere iermo e sin fazer edifiçio en él”. LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 72. dok.

(50) Ibidem, 94. dok. Auzia 1511ean hasi zuen komentuak Pedoren hiloba zen Katalina Urrestiren aurka, lehengoak bere testamentuan utzi zuen legatu bat dela eta. Zehazki, legatu honek, Pedoren hiloba Ramus eta komentu batzuk uzten zituen oinordeko bezala, tartean San Bartolome zegoelarik. Ikus FERNÁNDEZ MARTÍN, L., aip. lan., 223-225. orr.

(51) 1503ko salmentaren inguruan, ikus LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 81 eta 82. dok.

(52) AGG-GAO CO LCI 4.

lkatu eta horren inguruan nolabaiteko ondorioak adieraztea izango da, inolako saiakera sakonik egin gabe.

XIV. mende hasieratik XVIko lehengo urtetara arte, dugun dokumentazioa kontutan izanik, lehenik, *errotak* eta hauen jabetza aipatu beharko genituzke. 1303. urtean Arrameleko zubi ondoan zegoenak hauen inguruko informazioari hasiera ematen badio, beste 6 dokumentatuak ditugu. Zurriolako errota, zeinean komentuak 1362an ¹/8a lortuko badu ere, gerora, XVI. mende hasiera baino lehenago, jabetza osotasunean izango du; bestetik, XV. mende hasierako Balentegi (1427) eta Molinaoko (1448. urtea baino lehenago) errotak ditugu. Mende horren amaieran, Errotaberria, Iesa eta Rodabarriakoak batuko zaizkio⁵³.

Lehen, errota hauek kontrolatzea zer zekarren adierazi badugu, horren inguruan beste aipamen bat egin behar dugu. Hain zuzen ere, errota guzti hauen jabetza, datuek kontrakorik esan ezean, bere osotasunean komentuarena izaten bukatuko duela, Molinao eta Zurriolako kasuek ondo adierazten duten bezala. Eta datu hau ez da nolana hikoia, zuzenean Donostiako udalbatzaren interesekin talka egin zezakeelako. Nahiz eta San Bartolomeren inguruko zuzeneko datu-rik ez izan, Martin Perez Bildaingoak 1492an aurkeztutako kexuek, komentua ere horietan atzetik zegoela adieraz dezakete. Kexuak udalbatzak bereak ziren hainbat errota zergak ordaintzetik libratu eta Donostiako auzokoak horietara ehotzea behartzen zituelako ziren, hiribildu barnean bizi eta errotak zituzten auzokoekin hitzartutakoa ez betez⁵⁴.

Bestalde, San Miguelgo ospitalearekin trukea egin baino lehen, Berama, Artazko, Ainzoain eta Lizaranan lur, etxe eta beste hainbat ondasun izango dituzte, 1318tik 1436. urtera arte.

Nekazal munduko jabetzei dagokienez, lurrak, mendiak, “urak”, sagastiak, mahastiak, ereiteko zelaia, zehaitzak (haritzak) eta basetxeak ikusi ahal izan ditugu: Eldua-Berrobin kokatutakoak (1312), Buñoa etxea eta bere jabetzak, 1394. urterarte San Bartolometik gertu zuten baratza eta mahastia, Markotegi etxearen ondoan zegoen zelaia, Iribar edo Yeribar etxeari zegozkion haritzak, Pasaiaruntz zihoan galtzadan zeuden lur eta urak edota Juan Guarnizokoak saldutako Berroizarrapar lur eta mendiak. Bestetik, Aginagan zuten Girona nasa. Eta azkenik, hiribildu barruko orube eta etxeak.

(53) Ald. FERNÁNDEZ MARTÍN, L., aip. lan., 218 eta 221 orr.

(54) Ikus IRIJOA CORTÉS, I.: “Finanzas concejiles e irregularidades fiscales en San Sebastián (1489-1517)”, 15. orr. (argitaratu gabe).

Azken hauei dagokienez, aipamen nagusi bat egin beharko genuke. Dugun informazioaren arabera, orubeek komentuaeren jabetza osatzen dutela baitirudi eta ez, bertan eraiki ziren etxeak. Honek ez zekarren ustiaketa zailtasun handiegirik, orubeak zentsoan zituztenek edozein prozedura (salmenta, uztea eta abar) egin baitzezaketen, beti ere mojek zentsoa kobratzen jarraitzen zuten bitartean⁵⁵. 1489. urtean zentsoan utzitako orubean ordea, mojek argi adierazten dute María Gonzalez de Guarnizoren aldetik jaso zuten ondasuna etxea zela; guk, jaso zutena etxea eta orubea zirela uste dugu. Hain zuzen ere, gertatu zitekeenaren aurrean nolabaiteko ziurtasuna izateko; hau da, suteek eragindako kalteen aurrean. Hori dela eta, baliteke emate dokumentu horretan Mariak, baldintza bezala orube horretan etxe bat eraikia egon behar zela jartzea; ondorioz, maiztertzan ondasuna jasoko zutenek eraikina mantendu edo eraikitzaera behartuak egongo ziren, orduan ondo aipatzen den bezala.

Daturik harrigarrietanariko bat *mahastien* inguruko aipamen eskasa da. Batez ere, monasterioek haietan jarrita zuten arreta kontutan izanik; ezin baitugu ahaztu hiribilduak hornitze merkatu oso interesgarria zirela, produktu propioak babesteko politikak zirenak zirela⁵⁶. Gure ustetan, mahastiek bere biziko garrantzia izango zuten komenturako. Eta adibide eredugarria dugu horretarako: mahasti inausitzaila edo *podavin* izeneko langileen lehengo aipamenak, San Bartolomeko dokumentazioak ematen baitizkigu: 1394ko Martin Elizalderi eginiko salmentan, Ioan Gartzia Segurakoa dugu eta 1427an, Miguel Lizartzakoa⁵⁷. Mahasti gehienak komentuaeren inguruko lurretan egongo zirela uste badugu ere⁵⁸, badakigu, lehen aipatu bezala, komentuak Donostiako Puyuelo kalean behintzat, beste bat zuela, eta Zurriolako errotatik gertu ere, beste bi edo hiru⁵⁹. Mahastien garrantziaren hipotesi hau kontutan harturik,

(55) SOLORZANO TELECHEA, J.A., aip. lan., 194-195.

(56) Ibidem, 172-176. orr., bereziki, 172-174. orr. SÁNCHEZ CHOUZA, J.M.: *A Coruña en la Baja Edad Media*. A Coruña, 2005, Seminario de Estudos Galegos, 50-52. orr.

(57) LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 41 eta 51. dok.

(58) Komentuaerenak izan ala ez. Horren adibide gisa 1494ko 3 ezkontza hitzartzen dituen hitzarmen berezi batean dugu (Antón Perez de Arrona, Catalina Perez de Oianguren / La Torre-ekin; eta azken honen anai-arreba diren Antón Perez eta María Ortiz, Antón Perez de Arronaren seme-alabekin; Juan Gartzia eta María Anton de Arronarekin, alegia). Bertan, Miguel Perez de Oiangurenek Antón Perez bere semeari eginiko emakiden artean berak aipatzen duen: “Otrosy, vos do e dono he dado y donado a vos el dicho Anton Peres my fijo (...) vna byna que he e tengo en la jurisdicción de la dicha villa de San Sabastian, cabe al monesterio de señor Sant Bartolome, con su casa e lagar que ende son, que han por linderos de la vna parte la yglesia de Sant Bartolome y de la otra parte la viña de Juan Lopes de Aguyrre”. AGG-GAO CO MCI 26.

(59) FERNÁNDEZ MARTÍN, L., aip. lan., 221. orr.

ez litzateke harritzekoa izango komentuak, hainbat lur errentamendu edo maiztertzan jartzerako garaian, baldintza bezala mahastiak landatzea ezartzea. Bestetik, mahasti eta ardoaren produkzioarekin erlazionatutako arlo bat aipatu behar dugu: nahiz eta daturik ez izan, baliteke hiribildu barnean edo harresien ondoko lurretan upategiak edota tolaireak zituzten etxolak izatea⁶⁰.

Ondasunen inguruan beste bi esparruz hitz egin behar dugu. Batetik, horiek *lortzeko* erabiltzen ziren *formulak*; bestetik, *ondasunak ustiatzekoak*.

Lortzeko formulei dagokienez, hiru modu aipatu behar ditugu: salmentak, emateak eta trukeak⁶¹. Dugun dokumentazioaren arabera, azkeneko biak izango dira ez-ohikoenak: Nafarroan zituzten jabetzak eta Zurriolako errota-^{1/8a} emate bidez egingo dira; trukea berriz, lantzen dugun esparru kronologikoan, 1436. urtean besterik ez dugu dokumentatua. Hala ere, XVI. mende hasierako auzi batek ere beste datu batzuk ematen dizkigu; hain zuzen ere, Domingo Martínez Berrasoetakoak, bere aitak komentuari Zurriolako errota-^{1/8a} gertu zeuden bi edo hiru mahasti zati eman zizkiola adierazten baitzuen.

Ondorioz, ondasun ezberdinen lorpen dokumentuek adierazten dutenez, salmentak izango dira modurik hedatuena⁶²: Arrameleko zubitik gertu zegoen errota-^{1/8a} hasi eta Berroizarraparko lur eta mendietara arte. Aurreko lerroetan aipatu dugu komentuak inguruan zituenen lurren lorpenean islatzen zen lur-pilaketa politika. Ondorioz, XV. mendearen lehenengo erdialdera arte, San Bartolomek ondasunak lortzeko politika horretan dirua eta kapitala inbertitu zituela esan dezakegu, beste formula batzuk bigarren maila batean zeudelarik. Hasieran, politika honek adieraz dezakeen ondorioz nagusia, komentuak eramandako ondasun politika errentagarria da. Beste kasu batzuetan ondasunak lortzeko erabilitako formulen inguruan truke eta batez ere, emateen pisua aipatu bada, komentu donostiarrak kontrakoa erakusten du. Donostiako portuko hamarrenetan, XIII. mende amaieratik 1000 maraitako mesedea iza-

(60) Ikus 50. nota. Ikus baita GARCÍA FERNÁNDEZ, E., aip. lan., 91-92. orr. eta FERNÁNDEZ CONDE, Fco. J., aip. lan. Alor hau hiribildu ezberdinek sagardo produkzioan ezarri zituzten neurri protekzionistetan argi eta garbi ikusten da, iada XIV. mendetik, Tolosa edo Segura bezalako hiribilduetan. Hauen inguruan MARTÍNEZ DÍEZ, G. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; MARTÍNEZ LLORENTE, F.J., aip. lan., 159 eta 243. dok.

(61) Eskuratzeko sistemen inguruan, ikus SOLORZANO TELECHEA, J.A., aip. lan. 131-142. orr. Ald. baita, GARCÍA FERNÁNDEZ, E., aip. lan.

(62) Ald. VIVES ALMANDOZ, G.: “Catálogo...”, aip. lan., truke, zentso eta salmenten alor-^{1/8a} rrak. Ohartu behar dugu baieztapen hau mantendu den dokumentazioan oinarria duela eta beraz, tentuz hartu beharrekoa dela.

teak lagunduko luke horretan, hiribilduko merkatal dinamismoaren onuradun zuzena izatea posible egingo baitzuen.

Bestalde, politika horretan ere, emakumeak komentuan moja bezala sartzerako garaian eman behar zuten moja-sarian eta ahaide eta leinukoek ere, legatu bezala uzten zuten diru kopuru eta ondasunetan bilatu daiteke. Hori dela eta, komentuak likidezia nabaria lortuko zuen, salmentak aurrera eramatea posible egingo lukeelarik, lurrak lortzeko modurik nagusia bihurtuz.

Beraz, hasiera batean behintzat, komentuak XIV. mende erdialderako lortutako hainbat mesede eta ondasunen bidez, dirua eta errentak lortu dituela, esan dezakegu. Baina XIV. mende amaieratik eta XV. mende erdialdera, egoera aldatu zela dirudi.

**I Taula: San Bartolome komentuaren erosketak eta salmentak
(1303-1484)⁶³**

Erosketak		
Urtea	Ondasuna	Salneurria
1303	Arrameleko errota	13.000 marai (burgaleses)
1312	Elduako ondasunak	300 soldata
1346	Buñoa orubea	1.300 marai
1360	Mendi lurra	350 marai
1427	Ereiteko zelaia	10 florin
1448	Molinaoko errotaren erdia	50 florin
1484	Lur zatia	150 Florin ⁶³
Salmenta		
1394	Mahastia eta baratza	6.000 marai

Taulan ikus daitekeenez, XIV. mendeko lehen 60 urteetarako, dauzka-gun datuek diotenez, komentuak gastu nabaria egin zuela esan dezakegu. Arrameleko errota delarik nabarmena, 13.000 marairen truke erosi baitzuen. Buñoa orubeak, berriz, 1.300 marai balio izan zituen. Ondorengo urteetan,

(63) Nahiz eta ordain agiriak 50 florineko ordaina adierazi, dokumentu hasieran Juan de Guarnizok adierazten du, ordaina “allende e demas de los dichos cient florines, que es la suma por que yo obe conprado la dicha tierra, vos, la dicha priora e monjas me abedes dado e pagado la suma e quantia de çinquenta florines...”.

XV. mende erdialdean, bi salmentek 60 florinetako diru gastua dakarte eta 1484ko lurra ere, 50 florin besterik ez zituen balio. Kopurua jeitsi egin da beraz eta ondorioz, komentua bere lurra eskuratzeko politikan nolabaiteko beherakada nabarmena izan duela esan dezakegu. Nolabait, bere politika ekonomikoak beherakada izan zuela, errentak gutxitu zirelarik eta egoera ekonomikoak txartzera egin zuela.

Datu batzuen arabera, komentua ekonomia arazoak XIV. mende amaieran eta XV. mende hasieran nabariak izan ziren: 1394. urtean Martin Eleizaldekoari 6000 maraigatik mahasti eta baratza zati bat saldu behar izan zizkion, harresien eta paretan berreraikuntza lanak aurrera eramateko⁶⁴. Salmenta honen zergatia komentua egoera ekonomiko kaxkarrean zetzan:

“por quanto el dicho conbento es pobre e menesteroso [e non tiene] bienes muebles para que pueda faser cumplir las dichas obras e reparamientos”.

XV. mendeko hasierako urteak ere ez ziren oso ezberdinak izan, oraindik ere beraien burua “...pobres e personas miserables, so cuya merçet e limosna del dicho conçeio viven, e tales que ellas non podrian seguir pleito nin pleitos...” bezala aurkezten baitute⁶⁵.

Bestalde eta lorpen formula zein den, hau da, dirua gastatzekoa edo doaikoa den alde batera utziz, beste datu azpimagarri bat ondasun horiek lortzeko testuingurua da: horietariko askok testamentuetan ezarritako legatuen ondorio baitziren. Horrek, erlijioaren pisua adierazten badu ere, beste ikuspegi batetik aztertzea ere posible da. Batzuetan lorpen formula hori pertsonaren bizitzan zehar egiten bazen ere, gehienetan ondasun horiek hiltzerako momentuan edo ondorengo hilabeteetan pasatzen zitzaizkion. Hau da, emariak bere bizitzan zehar gozaten zuen ondasuna izaten jarraitzen zuen. Beraz, eta Solorzano Telecheak testamentuen inguruan aipatzen duen bezala, testamentuak, “representó el medio de ganar las cosas eternas sin perder las cosas temporales”⁶⁶; hain zuzen, emaiak, hil arte ondasun horretaz gozatu lukeelako.

Bestetik, *jabetza horien ustiaketari* buruz hitz egin behar dugu. Lurra, errota edo mahastiak ustiatzeko modurik nagusia errentamendua zen. Hau da, pertsonak nolabaiteko errenta edo diru bat ordaintzea lur horiek ustiatu eta

(64) LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 41. dok.

(65) Ibidem, 48. dok.

(66) SOLORZANO TELECHEA, J.A., aip. lan., 134-137. orr.; aipatu esaldia, 135. orr.

gozatzearen truke⁶⁷. XVI. mende hasieran Donostiako udalbatzarekin izandako auzian, horren inguruko datu dezente aipatzen dira: Petrico zapataria eta Pedro de Atxega harakinak, alokairu bat ordaintzen zuten hiribildu barneko orubeengatik; Domingo Etxeandiakoak, komentuko mahasti bat zuen maiztertzan; Maria de Hoak, Balentegi eta Zurriolako errotetan bizi izan zela adierazten zuen; Juan de Estanga zamalaria, maizter bezala zegoen Balentegi eta Errotaberrian, eta egoera berdinean zegoen Juango de Rodabarria Errotabarria eta Iesako errotetan⁶⁸.

Zentsoak ere, dirua eskuratzeko formula aproposa ziren. Lehenago aipatu dugu 1492ean komentuk hiribildu barnean zuen orube bat Ramus de Estor eta María de Estiron andreari utzi egin ziela, ondasun higiezin horretan zentso bat ezarriz. Aurreko urteetan ere, beste adibide batzuk ditugu. Hala, 1462. urtera arte Martin Perez Etxezarretakoak, San Bizente kalean zuen etxe baten gainean 18 maraitako zentsoa ordaindu behar zion komentuari. Orduko abuztuan, zentso honetatik libre egin, baina errenta bera Martinek berak Andre Maria kalean zuen beste bizileku batean ezarri zioten⁶⁹. Zentso horren arrazoia, Martin Perez baino lehenago izan zen etxe horren jabeak, Gabriel de Faiet-ek, komentuearekin hartutako zor batean zetzan:

“los quales dichos diez e ocho maravedis vos el dicho Martin Perez abedes usado de dar e pagar a nos el dicho conbento priora e monias e a nuestra voz en nuestro nonbre en cada un anno por deuda d’ello al dicho conbento del dicho monasterio fecha por quien hera sennor poseedor de la dicha casa e por quanto agora de presente vos el dicho Martin Perez oy dia de la fecha de la presente carta e escriptura conosçiendo vos ser tenido e deudor de los dichos diez e ocho maravedis de la dicha moneda”.

Zentsoen beste eredu bat aurreko mendean dugu. 1388. urtean Catalina de Prat donostiarrak Andre Maria eta San Bizente elizetako kapilauari, Gabriel de Faieti, San Bizente kalean kokatutako etxe soto bat (bere enparantza, zeru eta atzeko lurrekin batera) 1500 marairen truke saldu zionean, urtero komentuari 18 maraitako zentsoa ordaintzera behartzen zion (lehenengo 5 urteak ezik), Lorenz de Surubis merkatariaren arimagatik⁷⁰. Kontutan harturik saldu-tako ondasuna Lorenzek Catalinari pasa ziola, ez litzateke harritzekoa izango

(67) Errentamentuak edo maiztertzak oligarkia donostiarraren eredu ere izan ziren, lurretan inbertitzerako garaian. TENA GARCÍA, M.^a S., aip. lan., 413. orr.

(68) 1508ko lekukotzetan adierazten duten bezala. Ikus FERNÁNDEZ MARTÍN, L., aip. lan., 218 eta 221. orr.

(69) LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 57. dok.

(70) Soledad Tenak dio, Surubistarrak Baionako XIII. mendean merkatari eta itsauntzi jabeak zirela. TENA GARCÍA, M.^a S., aip. lan., 390. orr.

Surubisek berak komentuarekin erlazioren bat izatea; agian, ondasuna aldez aurretik komentuarena zela edota komentuak nolabaiteko laguntza eman izatea. Edozein delarik etxearen jabetzaren garapena, kasu honek egoera berezi bat agerian uzten digu: komentuarena ez zen ondasun batek, honen onerako eta horrek dirua lortzeko aukera ematen zuen klausula bat suposatzen zuela.

Aipatu ditugun azken bi adibide hauek ordea, zentso berdinarean nondik norakoa adierazten digutela uste dugu. Gabriel de Faietek 1388. urtean San Bizente kaleko etxe batean ezarretakoa eta gero, Martin Perez Etxezarretakoak Andre Mariako etxe batean ezarri zuena.

Garapen honek, zentso mota ezberdinak aipatzera garamatza. Nahiz eta beste leku batzuetan biziarteko zentsoak eta “laburrak” edo epe motz baterako ezartzen zirenak erabiltzen zirela jakin, San Bartolomeren kasuan ez dugu bi horien eredurik, nahiz eta halakorik izatea posible izan. Ondorioz, formula nagusia bizi osorako zentsoak zirela ondorioztatu dezakegu. Horiak ezartzearen arrazoia maizterrek komentuaren ondasuna kudeatu eta mantendu behar zutenean datza, eta baita, Solorzano Telecheak adierazten duenez⁷¹, ondarea berreraikitzeak aukera izateko. Honen adibidea 1489 eta 1492an aipatzen diren Donostian zituzten orubeetan dago. Hain zuzen ere, zentsoak erabilera izan zezan, orube horietan, hiribilduko sutea izan baino lehenago zeuden etxeak berreraiki behar baitziren.

Biziarteko edo hilarteko zentsoen erabilpenean ere, ondasunen kudeaketa hobe bat ikusi behar dugu. Hain zuzen ere, zuzenean kudeatu ezin zitezkeen ondasunak (gehienbat, aldentuta zeudenak) errentagarriagoak egiteko eta denbora pasa ahala kontratu berriak ezartzeko kezkarik ez izateko sistema aproposa zela⁷².

Bestetik, azkeneko galdera bati erantzun behar diogu; aurreko lerroetan ere, nolabait aipatu duguna. Ditugun datuekin, logika geografikorik ba al zuten ondasun guzti hauek? Loistaraindaren XIV. mendeko kasuak⁷³, Berio-Ibaeta-

(71) SOLORZANO TELECHEA, J.A., aip. lan., 191-192. orr.

(72) Ibidem, 170-171. orr.

(73) Loizia eta Loistarain toponimoak, Donostia inguruko leku izenetan zaharrenetariakoak direla aipatu behar dugu, XII. mendearen erdialdean lehenbizikoz aipatzen direlarik, 1141-1150 urtean Gartzia Ramirez errege nafarrak Iruñeako elizari eginiko hainbat sailen ematean aipatzen baitira, Amasorra(ra)in eta Igeldorekin batera, besteak beste. Biak ere, 1014 emate apokrifo famatuan aipatzen dira, baina honen datazioa XII. mende amaierakoa denez, aurrekoa lehengotzat dugu. Ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.: *Guipúzcoa en los albores de su historia (siglos X-XII)*. Donostia, 1975, GFA, 26. dok. eta 28-32, 116-119. orr.; ald. ibidem, 25. dok.

Antigua inguruan, lehen Artiga bezala ezagutzen zen zonaldean, begirada jartzea behartzen gaitu, orubea Berion baitzegoen. Balentegi eta Beriozarrapar leku izenek ere, Merclin abizenak bezala, zonalde berdinerara bideratzen gaituzte. Tomastegi inguruko zelaiak ere, nahiz eta zehazki non zegoen ez jakin, inguru berdinerara eraman behar gaitu. Halaber, Buñoako orubea lortzerakoan aipatzen diren ondasunen artean Añorgan zegoen Markotegi etxea aipatzen da, zeina Urrea Masorrrarain edo Amasorraingoarena den, beste abizen adierazgarri bat⁷⁴.

Geroago ikusiko dugunez, moja batzuen abizenek ere, hala nola Lugaritz eta Igeldo, esparru geografiko berdinerara eramaten gaituzte. Hiribildutik nahiko urruti eta komentutik gertuago zeuden lekuetara –bere eragina areagotuz–, hain zuzen ere. Faiet, Guarnizo eta abar bezalako abizenek, beraien etxeen kokalekuaren arabera, argi uzten dute komentuarien erlazioek zein zonaldean izan zuten eraginik nagusia⁷⁵.

Azkenik, Amasorrain orubea Donostia eta Usurbil arteko bidean zegoen. Beraz, azken hiribildu honen inguruetara nolabaiteko hedapen politika bat ikus daiteke. Aipatu dugun bezala, Donostiatik gero eta urrunago zeuden leku batzuetara, baina komentuarien eraginetik gertu zeudenak.

Ez dugu ahaztu behar XIX. mende arte, Donostia inguruek padura bat osatzen zutela; eta Urumeak eta Añorga ibaiek itsasgora eta itsabeheren ondorioz, gaur egun erakita dauden lur asko orduan eraikiezinak zirela. Aro Modernoan eta XIX. mendeko plano ezberdinek, mareak zirela eta, argi adierazten dute zein ezberdina zen garaiko Donostia gaur egungoarekin alderatuz. Hori dela eta, lur horiek hiribildutik aldentuta agertzen ziren eta beraz, beste botere guneekin erlazio zuzenagoa izan zezaketen hiribilduarekin baino. Hala argitu daiteke San Bartolomek San Martin eta Artiga inguruekin zuen erlazioa.

(74) Ikus TELLABIDE AZKOLAIN, J.: *Donostiako toponimi erregistroa: gaurkoa, historikoa, geografikoa, deskribatzailea*. Donostia, 1995, Kutxa, 64-21 mapa: “Tomasteiko iturriya” eta “Tomasteia” lur saila, Añorgatik gertu. Datu batzuen arabera, Markotegi gaur egun Agorrenea baserria dagoen lekuan egongo litzateke. Balentegitik ez zegoen oso urruti.

(75) Kokapenerako: *Ibidem* eta ETNOGINTZA: *Donostiako toponimia txostena*. Donostia, 1996, a. g., (<http://www.euskaraz.net/Toponimia/ToponimiaEtnogintza1.pdf>).

2.4. Diru sarrerak lortzeko beste modu bat: Errege errentak eta juroak

Errentak lortzeko beste modu bat, erret zergetan nolabaiteko partehartzea izatean zetzan⁷⁶. XIII. mende amaieran Gaztelako erregeak komentuari Donostiako portuko hamarrenean eman zion pribilegioa ikusi dugu. Bestalde, Endrike IV.ak, zehazki noiz ez badakigu ere, 3.000 maraitako juroa eman zion: horietatik, 2.000 Donostiako alkabaletan ezarriak, beste 1.000 maraiak Pasaiaikoetan zeudelarik⁷⁷. Bestetik, 1484. urtean Donostia eta Astigarrako alkabaletan lortutako 3.000 marai, Juan de Agirrek egindako ukapenari esker⁷⁸; Gaztelako errege-erreginek ere, komentuak zituen juroak baieztatzen zituzten 1491ko otsailaren 25ean⁷⁹.

Bestetik, pribilegio negatiboak aipatu ditzakegu; hau da, dirua lortu ordez, errentak ez ordaintzeko mesedeak. Negatibo hitza ezartzearen arrazoia ulergarria da: horiengatik ez baitzuten diru sarrera berririk lortzen, baina bai gastuen murrizketa bat. Hauen artean 1418 urteko salbuespena dugu; mojek beraien pobrezia argudiatuz, udalbatzak primiziak ordaintzeatik libre izatea lortu baitzuten.

Halaber, beste garrantzia handiko mesede bat aipatu behar da. Gerora udalbatzarekin tirabirak sortuko dituen: komentuaren jabetzak udalbatzak egiten zituen gastuak ordaintzeko dirubanaketetatik at baitzegoen. Aurreragoko lerroetan adieraziko dugunez, liskarrak hiribildu barnean zeuden orubeengatik izango dira. Bestalde, neurri hauek orohar errespetatu egiten zirela dirudi. 1512ko dirubanaketan, Artigetako petxuan azaltzen diren diru kopuruek hori argi uzten dute: Balentegi basetxea bezalako jabetzak ez baitira azaltzen. Baina bai Loistarain, Markotegi, Miramon, Miguel Agirrerena zen Iribar etxea, Berio-goikoa eta Berio-azpikoa bezalako orube eta etxeak⁸⁰.

(76) Katedralen kabildoek hauetan zuten partehartzarako, FERNÁNDEZ CONDE, Fco. J., aip. lan., 329. orr. eta hh.

(77) 1481ko datuen arabera. Ikus ACHÓN INSAUSTI, J.A.: “*A voz de concejo*”. *Linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa: los Báñez y Mondragón, siglos XIII-XVI*. Donostia, 1995, GFA, 180. orr.

(78) Alkabalaren datua, LEGORBURU FAUS, E.; AYERBE IRIBAR, M.^a R. (zuz.), aip. lan., 15. orr. eta 24. nota. Hain zuzen, Agirre, Gaztelako kondestablearen otseina zen eta 1491. urtean, Errege Katolikoan aldetik, hamarren lehorretik 4.082 ½ marai eskuratzeko mesedeak lortu zuen. Ikus LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 70. dok.

(79) LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 69. dok.

(80) Ikus IRIJOA CORTÉS, I.: “Finanzas concejiles...”, aip. lan. eta FERNÁNDEZ ANTUÑA, C.M., aip. lan.

II Taula: San Bartolomeko “kokatu” edo “situadoak” (1544)

Errenta	Lekua	Diru Kopurua
Alkabalak	Astigarraga	1.000 marai
Alkabalak	Irura	1.000 marai
Alkabalak	Donostia	2.000 marai
Hamarren zaharra	Donostia	1.000 marai
Hamarren zaharra	Deba	400 dukat
Hamarren zaharra	Getaria	182 ½ dukat
Alkabalak	Lenez (Bureba)	10.000 marai
Alkabalak	Barbadillo (Burgos)	7.000 marai
Alkabalak	Yoves eta Raldos (Burgos)	6.000 marai
Burdinaren hamarren zahar eta lehorra	Nafarroatik Donostiara zihoan burdina	3.500 dukat (?)
Hamarrenak, aduanak eta portuko eskubideak	Vitoria-Gasteiz	15.000 marai
Hamarrenak, aduanak eta portuko eskubideak	Logroño	13.125 marai

Iturria: CAMINO Y ORELLA, J.A., aip. lan., 197. orr.

Erljioarekin erlazonatutako eta errentak lortzeko zuzeneko sistemarik nagusiena testamentuetan ezartzen ziren legatuak ziren; eta nahikoa adibide ezarri ditugu aurreko lerroetan. Guzti honek, batetik, eta geroago ikusiko dugun bezala, pertsona eta leinuek komentuekin zuten erlazioa islatzen du. Bestetik, eta horren ondorio, heriotzaren negozioa aipatu dezakegu, zeinak erakunde erlijiosoei diru sarrera garrantzitsuak eskaini zizkien⁸¹. Eta horren eredu, XIV. mendeko lehen erdialdean, hiletekin erlazonatutako errenten inguruan Donostia barneko elizen elizgizonekin izandako tirabirak.

(81) “La muerte lo quisieran o no los clérigos y religiosos se había acabado convirtiendo en un instrumento de desarrollo económico para numerosas entidades eclesíásticas que mediante los ingresos que recibían en esos momentos engrandecieron y embellecieron estos centros de oración”. GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: *Gobernar la ciudad en la Edad Media. Elites y oligarquías en el País Vasco*. Vitoria-Gasteiz, 2004, AFA, 495. orr. Ikus ibidem, 495-498. orr.

3. Botere guneen arteko talka: Udalbatza, elizgizon eta komentuaren arteko erlazioa

Argi dago, eta lehen aipatu dugu, komentuak XIII. amaieran eta XIV. mende hasieran jaso zuen bultzadak, udal gobernuei nolabaiteko kezka sortu zitzaizela, nolabaiteko konpetentzia sor zezakeelako. Non zetzan bada, arazorik nagusiena? XIV. mendeko krisiaren ondorio nagusienetako batean: errenta eta diru sarreretan. Eta horretarako, XV. mende amaierako adibide oso esanguratsua dugu: 1484. urtean, Donostiako kontzejuak, bizi zuen egoera larriari (izurriteak, suteak) aurre egiteko, Pasai San Pedron ospatutako udalbatzarrean hainbat ondasun atera zituen enkante publikora. Kasu honetan, Domingo de Guarnizo izan zen ondasun horietako batzuk lortu zituena. Handik hilabete gutxi batzuetara ordea, Domingok lortutako lur saila komentuari saldu zion. Hau da, hasiera batean udalbatzaren jabetza zen lur bat, beste jurisdikzio batera pasa zen. Kasu honetan, honek zer zekarren? Errenten gutxitzea. Komentuak ez baitzuen bere ondasunengatik udal errepartimendu edo diru banaketetan parte hartzen; libre zegoen, eta hori justifikatzen zuten mesedeak zituen, gainera.

Ez dirudi 1484ko kasuan kontzejuak protesta handirik egin zuenik; ez dugu horien aipamen edo lekukorik, behinik behin. Baina bai ondorengo urteetan, XVI. mende hasieran. Orduan bai. Orduan auzia Erret Txantzilleritzara iritsi zen, komentuari arrazoia eman zitzaizolarik. Kasu honetan argi geratzen da zer zekarren komentuak hiribildu inguruan lurak izatea: horiek Donostiako auzoko edo biztanleek ustiatuta, udalbatzak ezartzen zituen diru banateka edo errepartimenduetatik kanpo geratzea, ez baitzuten errentarik ordaintzen.

Baina lur sail eta mahasti ezberdinek ez zuten errenten inguruko kasu bakarra osatzen. Erret zergen inguruko emateak eta mesedeak beste arlo bat dira. Askotan kontzejuak zuzenean kudeatzen zituzten, nahiz eta diru sarrera horiek erregearentzako izan. Pertsona ezberdinei, alkabala, hamarrenetan eta beste hainbat zergetan jatorria zuten kopuruak (“situadoak” edo “kokatuak”) ematen bazitzairen, berdin gertatzen zen beste instituzio batzuekin. Kasu honetan, Donostiak jaso behar zuen portuko hamarrenaz ari gara; horietatik 1.000 marai San Bartolomera pasa baitziren 1294. urtean. Bestetik, Donostia, Pasaia eta Astigarragako alkabaletan zituzten diru kopurua edo kokatuak ere aipa ditzakegu. Honek, udalbatzak eskumen hori nolabait beste batzuegatik kontrolatua izatea zekarren; edota, udalbatzak horiek kudeatzeko aukera zuzena bazuen ere, gertu zeuden beste gune batzuen aurrean azalpenak eman behar izatea eta zorrotasun handiagorekin bete behar izatea. Hain zuzen ere, dirua jasotzeko ahalmen horretan askatasun osoz ibili ahal ez izatea, eta beraz, horrek zekartzan abantailak ez gozatzea. Beraz, ez da harrizkeoa momentu hortatik aurrera dokumentazioak udalbatza eta komentuaren arteko tirabira eta eztabaiden isla izatea.

XV. mende amaieran egoera horrek argiagoa dirudi. Baina kontutan hartu behar dugu Donostiak bizi zuen testuinguru berreraikitzailea, 1489ko sutearen ondorioz sortutakoa. Eta horrek udalbatzari hiribilduko antolakuntza eta organo politikoa indartu eta behingoz errejimendua sartzeko aukera eman ziola kontutan hartuz, komentuak bere pribilegioak nolabaiteko arriskuan egon zitezkeela pentsa zezakeen. Edo behintzat, udalbatzaren boterea finkatu eta sendotu ahala, erlijiosen ondasunetan hauen jabetzaren inguruan nolabaiteko eztabaidak sor zitezkeela eta batzuk bere esku geratu edo errentak ordainarazi nahi zizkietelaren beldur izatea. Eta badirudi horrelako zerbeit gertatu zela: 1490ean 4.646 maraitako juroaren mesedearen kopia egitea agintzen bazen⁸², 1494ko maiatzaren 13an, erregeek komisio bat eratzeko mandatua ematen zuten, monasterioaren eskaera entzunaz. Komisio horrek zuen helburua monasterioaren pribilegio eta 50 mojak mantentzeko haina ondasun izatea errespetatzean zetzan, Donostiako udalbatzarreko ofizialek errenta ordainarazi nahi baitzieten⁸³. Ondorengo urteetan sortutako auzi batek beldur hori egia bihurtu zela adierazten digu, udalbatzak monasterioak hiribildu barruan zituen bi oruberengatik errepartimenduan parte hartzea nahi baitzuen⁸⁴.

1496ean aldiz, Errege Katolikoek komentuearekin erlazonatutako bi dokumentu ditugu: batetik, maiatzaren 5ean, Gipuzkoako korrejidoreari emandako komisioa: monjek pertsona batzuei emandako diruaren inguruan, “juro” batean inbertitzeko. Horien artean, Luis de Elduain batxilerrari emandako urrezko 139 dukat. Azken kopuru hau dela eta, 1500ko otsailean, komentuak bere aldeko errege betetze bat lortu zuen. Funtsean, mojek Luisi Gipuzkoako alkabaletan juroa erosteko utzitako diru kopuru horren itzultzea zekarren, juro horrek urtero sortuko zituen 3.000 maraitako errenta kobratzearen eskaera ere onartu zitzaielarik⁸⁵. Bestetik, 1496ean ere, Errege-erreginek San Bartolomeri babesa ematen zioten hainbat errotetan ogia ehotzeko zuten eskubidearen inguruan, zeinean $\frac{1}{16}$ a kobratzen zuten⁸⁶.

(82) Sutean erre zelako. Ikus LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 68. dok.

(83) AGS. RGS, 1494-III, maiatzaren 13a. Medina del Campo.

(84) Zehazki, maiztertzan zituzten pertsoneri udalak petxua bota zien; hauek hiribilduko auzoko bezala zegokien diru kopurua ordaindu zuten, baina ez etxeengatik zegokiena, komentuarrenak zirela argudiatuz. FERNÁNDEZ MARTÍN, L., aip. lan., 220. orr.

(85) ARChV. Reales Ejecutorias, 143-15.

(86) AGS. RGS. 1496-VI, 126. folioa. Egunik gabe.

XV. mende amaieran adibide garbiak baditugu ere, Donostiako udalbatzarekin izandako tirabirak XIII. mende amaieratik koka ditzakegula ezin dugu ahaztu. Hain zuzen ere, artikulua hasieran aipatu 1294ko dokumentuek argi adierazten dute Donostiako kontzejuak nolabaiteko pisua zuela eta era batera edo bestera, komentuaaren bizitza ekonomikoa baldintzatzen zuela. Azkenik, Donostiako udalbatzarekin aztertzen dugun kronologia esparruan bizitako azkeneko arazoa, XVI. mende hasieran izango dugu, San Bartolomerenak ziren eta hiribildu barnean zeuden orube eta etxe batzuek errepartimendu edo udalbatzak eginiko diru banaketetan parte hartzearen inguruan⁸⁷.

Dena den, erlazioak ez dira beti istilutsuak izango. Argi badago XIII. mende amaieran eta XIV. mendean zehar nolabaiteko talkak ikus ditzakegula, beste batzuetan argia da kontzejuak komentuaaren alde eginiko eta baieztatutako mesedeak. Hala, 1418. urtean, komentuaaren eskaerak onartzuz, Donostiako udalbatzak San Bartolomek zituen ondasun ezberdinetan (mahasti, sagardi, mendi, zelai, lur eta baratzetan) ezarrita eta ordaindu behar zituzten primizietatik salbuesten zituzten, diru hori, besteak beste, liburu, kalize eta apaingarrietan erabiltzearen truke. Honek, kontzejuak aurretik emandako neurri baten berrespena suposatzen zuen; baina baita “atzerri ofizialak” komentuaaren aurka eramandako aktuaioaren gaitzespena.

Beraz, XIII. mende amaierako dokumentazioak aditzera eman dezakeenaren kontra, orohar Donostiako udalbatza eta komentuaaren arteko erlazioak nahizko baketsuak zirela aitortu behar dugu. Hasierako liskarrek bizitza edo dinamika konplexuago baten aurrean gaudela adieraz diezagukete eta ondorioz, horren aurrean neurri eta hitzarmen berriak ezartzearen beharra. Bestetik, XV. mende amaierako eta XVI. hasierako dokumentuek, hiribilduaren barne dinamikaren isla dira. Hain zuzen ere, politiko eta ekonomikoki aro berri baten aurrean gaudela, zeinak Donostia hiribilduaren finkapena ezagutuko duen. Gainera, liskar hauek komentua hiribildu barnean zituen ondasunengatik dira eta ez Donostiako harresitik edo hemendik gertu zeudenengatik. Eta horrek logikoa dirudi, 1489ko suteak ekarri zuen dinamika berreraikitzailearekin lotzen badugu. Arazo horiek, testuinguru horren beste alde bat besterik ez bailukete erakutsiko; udalbatzak bere boterea finkatzeko aprobeztatu zuena eta non, barnean zeuden eta pribatuak ziren orubeen jabetza eskuratzeko politika bat isla dezakeena⁸⁸. Halaber, liskarren eskasiaren ondorioa, komentua eragina zuen lurretan izan zezakeen bere zergatia. Zuzenean hiribilduari

(87) Ikus FERNÁNDEZ MARTÍN, L., aip. lan. Egile honek XVI. mende hasieran izandako arazoak landu zituenez, ez dugu aipamen sakonik egingo.

(88) Ikus IRIJOA CORTÉS, I.: “Finanzas concejiles...”, aip. lan.

interesatzen ez zitzaizkion lurretan inbertituko bailuke. Beraz, bakoitzak bere esparrua zuela.

Bestetik, hasiera batean komentuak Tolosaldean zituen ondasunen inguruan ere, talkaren bat ikusi ahal izan dugu. Tolosako udalbatzarekin XIV. mende hasieran bizitakoa, hain zuzen ere. Zentzu honetan, badirudi akordioa nahiko iraunkorra izan zela, ez baitugu ondorengo urte eta mendeetan bi aldeen arteko istiluen berririk. Baliteke, Tolosak akordioa hautsi ondoren, mojek erroten ustiaketa uztearen ordainetan beste ondasun edo diru kopurua jaso ahal izatea. Edota, gerora komentuak Nafarroan zituen ondasunekin bezala, truke edo jabetza aldatze bat izatea. Baina honen inguruan ez dugu daturik.

Azkenik, tentsioak sor zitezkeen beste esparru bati egin behar diogu erreferentzia. Hain zuzen ere, monasterio hauek sortzearen ondorioz parroketako elizgizonekin sortzen zirenak⁸⁹. Eta hauek XIV. mende hasieran izango ditugu iada. 1319, bi erakunde erlijiosoen arteko tirabiren lehen epaia iritsiko da: komentuarena batetik, eta San Bizente eta Andre Maria elizetako elizgizonak, bestetik⁹⁰. Arazoa hileta elizkizunaren inguruan zegoen. Dokumentuak bi neurri nagusi ezartzen zituen. Batetik, priora eta mojek, San Bizente eta Andre Maria elizetako elizgizonei, egiten zituzten ehorzketa eta hiletetako anoa eta obentzioen⁹¹ laurdena eman behar zieten; eliza horietako eliztarrak baziren⁹².

Bestetik, neurri horiek errespetatuz, komentuan ehorzteko erabakia hartzen zutenek, ez zeuden beraien parroketan hildakoen mezak egitera behartuak, beraien testamentuan ezarrita ez bazegoen behintzat. Nahiz eta, esan bezala, obentzio eta hiletan laurdena eliz horiei eman⁹³.

(89) GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: *Gobernar la ciudad...*, aip. lan., 459 eta hh.

(90) LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 21. dok. 20 dokumentua epaileen izendapen gutuna da.

(91) Anoa, katedraletako edo kolegioetako elizaren batean zegoen prebenda edo errenta zen, zeina kabilduaren mahaian zegoen kokatua. Obentzioa aldiz, soldataz gain jasotzen zen interesa.

(92) “Mandamus (...) quod de omnibus funeralibus et relictis ratione sepulture et de obventionibus universis que provenerint cum funere cuiuscumque parrochiani dictarum ecclesiarum Sancte Marie et Sancti Vincentii de Sancto Sebastiano ad supradictum monasterium Sancti Bartholomey die sepulture predicte priorisse et moniales teneantur decetero perpetuo dare reddere et instituere quartam partem integre et complete clericis ecclesiarum predictarum qui nunc sunt et fuerint pro tempore in eisdem”.

(93) “...mandamus (...) quod decetero pretextu alicuius ordinationis facte seu statuti corpora defunctorum qui elegerint in dicto monasterio sepulturam, non teneantur necessario portari ad ecclesiam parrochiam nec ibidem predicti clerici possint vel debeant dicto funeri missam ...

Baina arazoak ez zuen konponbide erraza izan. Alegia, tirabirak izateko arrazoia uste baino konplexuagoa zela. Berriz ere, 1342an komentua Andre Maria eta San Bizente elizekin hiletakin erlazonatutako errenten inguruan sortutako tira-biren inguruko auzi berri bat emango baita⁹⁴. Epaia sententzia irakurrita argi dago garai honetarako jada, hainbat pertsonak beraien ehorzketak eta hilarriak komentuan egiten zituztela. Beraz, hiribildu barneko elizei nolabaiteko kompetentzia egiten zietela. Honek, elizgizon eta apaizen errenten gutxitzea zekarren eta ondorioz, azken hauengan errezeloa sortzea. Horren aurrean, Donostiako udalbatzarekin gertatu bezala, elizgizonek bahiturak eta eragozpenak jartzen zituzten. Baina hauek ez ziren arazoak sortzen zituzten bakarrak: elizgizon hauek, mojak, Andre Maria eta San Bizenteko bikarioen baimenik gabe, hileta elizkizun eta ofizioetan parte hartzen zutela baitzioten.

Epai berriak aurrekoak baino zehaztasun handiagoa zuen, batez ere, hiribilduko elizgizonei ezartzen zaitzaizkien neurrietan. Hala, besteak beste, honako hauek ezarri ziren:

Batetik, elizgizonak gaixoari olezaio edo azken igurtzidura eta gaubeilak ematera joatea posible egiten zuen, nahiz eta gaixoak bere gorpua San Bartolomen ehorztea erabaki. Dena den, horretarako elizgizonek komentua- ren baimena behar zuten eta gainera, joango zirenen bi elizgizonen artean, bat parrokiako bikarioa izan behar zen. Halaber, mojek hontara obsekiak esan edo abesteko kanpoko bikarioak bidali zitzaizketen, baina hauek apezpiku-barrutikoak izan behar zuten.

Bestalde, hildakoa etxetik kanpo hiltzen bazen eta bere senideek komentuan urteurrenko mezak egitea erabakitzen bazuten, elizgizonei, horiek ez eragozteko agintzen zitzairen. Halaber, urteurrenko meza hauek zendutakoa eliztarra zen elizan egin behar ziren, bere gurasoak monasterioan ehortzita zeuden kasuan izan ezik.

Zenduaren aitari edo bere ordezkaria zenari, komentuko hilobia era librean aukeratzea posible egiten zitzaion, aukeraketan elizgizonek inolako eragozpenik jarri behar ez zutelarik.

...
deffunctorum vel aliam aut alia divina officia celebrare nisi deffunctus hoc expresse mandaverit et ordinaverit in suo ultimo testamento sed libere recta via dictum funus a domo in qua diem clauserit extremum ad dictum monasterium deportetur cum de omnibus obventionibus et funeralibus que ad dictum monasterium devenerint dicte ecclesie parrochiales de iure habeant quartam partem et in aliquo non defraudentur ecclesie supradicte”.

(94) LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 27 eta 28. dok.

Monasterioan ehorztea aukeratzen zuen ibiltarien kasuan, obentzioaren laurdena bere elizari ematea agintzen zen.

Azkenik, mojeei ere neurriak ezartzen zitzaizkien. Hain zuzen ere, beraienak ez ziren parroketan, bikarioaren baimen eta lizentziarik gabe ezin zutela ofiziorik egin eta ezta abestu ere.

Ondorengo urte eta mendeetako dokumentazioa oinarritzat hartuz, badi-rudi oraingoan epaiak eragin handiagoa izan zuela, ez baitugu elizen eta komentuaren arteko arazo gehiagoren daturik.

Elizgizonekin izandako arazoek argi adierazten dute XIV. mende hasierarako iada, komentuaren eragin erlijiosoa eta honek zekartzan ondorioak, inguruko lurretan nabariak zirela. Ondoan bizi zirenen ehorzte aukera bilakatu zelarik. Logikoa dirudien aukera da, erlijioak garai hartan zuen pisua kontutan izanik eta baita komentuak ondasunak lortzeko lehentasuna ematen zion geografia ingurua jakinik; hau da, hiribildutik urruti baina eliz erakundearen eraginetik gertu zeudenak. Honek hiribilduko elizen errenten gutxitzea zekarren, eliztarrak kentzen baitzizkien eta ondorioz, tirabirak sor zitezkeen esparrua zen.

XIV. mendeko bigarren akordio horrek eliz erakundeen esparrua nahiko finkatua utzi zuen eta XVIII. mendera arte antzeko tirabira larririk ez gertatzea da horren isla. Gainera, egile batzuen ustez, San Bartolomek inguruetako leinu eta familiengan zuen eragina eta haien bizitza erlijiosoa bideratzerakoan zuen lehen mailako garrantzia, hiribildu barneko elizen baimena zuen; hain zuzen ere, populazio horretatik urrun zeudelako⁹⁵.

Bestetik, San Bartolomeren kokalekua beste hiribilduetarako bidean estrategikoa zenez (“San Bartolome del Camino” izena ere hartzen zuen, horren adierazgarri), Donostiara joaten ziren pertsonen ehorzte leku ere bazela adierazten digu⁹⁶. Ziurrenik, pertsona horiek, ibiltari soil baino, merkataritza jarduerekin erlacionatutako pertsonak lirateke: zamalariak, garraiolariak, mandalariak, merkataria, eta abar. Garaiko gizartea aztertzerako garaian hau ere kontutan hartu behar dugu. Hain zuzen ere, bideetan geratzen ziren bidaiariak inguruan zituzten erakunde erlijioso ezberdinak kontutan hartzea; etorkizuneari ere, Donostiara askotan joan edo hiribilduarekin nolabaiteko harreman estuak mantentzen bazituzten, beraien politikan eta “oekonomian” nolabai-

(95) LEGORBURU FAUS, E.: AYERBE IRIBAR, M.^a R. (zuz.), aip. lan. 31. orr. Inguruetako populazioarengan zuen eragin erlijiosorako, ibidem, 28. orr. eta hh.

(96) Ald. ibidem, 1. orr.

teko pisua izatea; eta hala ikus dezakegu XVII. mendean⁹⁷. Argi geratzen bada hainbat donostiarren testamentuetan, komentua hildakoaren ondasunen kudeatzaile eta titular bihurtzen dela, baliteke Donostiaz kanpoko jendearekin antzeko prozesua gertatzea. Edota erakunde erlijioso honekin sustatu zitekeen beste arlo batean eragina izatea: familia eta leinu ezberdinetakoa emakumeak komentura sartzea, hain zuzen ere.

4. San Bartolomeko komunitatea: Donostiar elite eta oligarkien interes puntua?

San Bartolome, inguruko lurretan bizi zen jendearentzako lehen mailako erreferentzia erlijiosoa bihurtu zen Aro Modernoan, batez ere San Martin, Santa Katalina, Aiete eta Amara inguruetan, eta hala adierazten da XVIII. mendean, noiz komentuko bikarioa egunean bi meza emate arte iritsi zen⁹⁸.

San Bartolomen bizi zen komunitateak 50 mojek osatzen zuten. Haiekin batera, bi kapilau zeuden. Dokumentazioak ematen dizkigun datuen arabera eta eranskinetan ematen dugun taularen arabera, moja horiek betebeharrak eta funtzio ezberdinak zituzten: Hala, priorea, prioreordea, giltzaria, diruzainak eta elizain edo serorak ditugu, besteak beste.

Karguen hauteskundeetan inguruan ez dugu garai honetarako inolako datu-rik, baina San Pedro de Ribas monasterioa erreferentziatzat zuela kontutan hartuta, logikoa dirudi honen konstituzioen eragina izatea, San Agustinen erregela jarraitzen zutenak, donostiar komentuek bezala. Hauen arabera⁹⁹ prioreak eta serorek zuten erabakigarritasunik handiena. Hala, lehenengoak edo seroraordeak, bigarrenekin “aya poder (...) de dispensar en estas cosas (...) quanto fuere menester...” adierazten zuen. Bestalde, priorea zen prioreordea aukeratu behar zuena, baina seroren kontseiluekin eta azkenik, priora hiltzen zenean, komentuek berria aukeratu behar zuen, gotzainarengatik berretsia izango zena.

Ondasunen emate eta salmentetan ikusi ahal izan dugu komentua eta donostiar batzuen arteko harreman estua. Baina harrigarriena ez da hainbatek komentuari ondasun ezberdinak eman zizkieten familia eta pertsona ezberdi-

(97) Ibidem, 30. orr.: “También se enterraban en el Monasterio a todos los extranjeros que perecían fuera de las murallas de San Sebastián en circunstancias violentas o por accidente”.

(98) Ibidem, 28, 29 eta 49. orr.

(99) Ikus CIERBIDE, R. eta RAMOS, E.: *Documentación medieval del monasterio de San Pedro de Ribas de Pamplona (siglos XIII-XVI)*. Donostia, 1995, Eusko Ikaskuntza, 71-82. orr. Priore izendapen bat 42-43. orr. ikus daiteke. Bestalde, honen inguruko analisi sakonik ez dugu egingo.

nekin zerikusia izatea; aitzitik, erlijioaren pisua kontutan izanik, hori normalena izan beharko litzatekeela dirudi. Baina hona hemen, horietariko batzuek, Donostia eta inguruetatik kanpoko gipuzkoar geografian jatorria dutela. Batez ere, Deba-Mendaro eta bereziki, Zarautz-Getaria-Zumaia aldetik. XV. mende amaiera arte ez ditugu izango Hernani, Urnieta edo Donostiako abizen ezagunak. Dena den, horrek ez du esan nahi Donostiako gizarteko ordezkariak ez zegoenik; hor dugu XIV. mende amaieran, Juliana de Bonaza priora. Eta donostiar hauekin hasiko dugu komentuaaren komunitatearen azterketa prosopografiko eta soziala.

XIII. eta XIV. mendeetako donostiar eliteen inguruan, Soledad Tenak hainbat izen ematen ditu. Bakoitzaren garapena zein den guretzako ez du garrantzi handiegirik, garrantzitsuak izan zirela jakitea baita interesatzen zai-guna. Leinurik garrantzitsuenak honako hauek lirake: Hua, Mayson, Merclin, Parada, Perquer, Nordinch, Mans, Gómiz/Engómez, Beaurepaire, (Otxoa de) Getaria eta Aginaga¹⁰⁰. XIV. mende hasieran hasten dira leinu gaskoiak gipuzkoarrekin elkartzen eta ondorioz, hauen elkartzeko prozesuak XV. mende bigarren erdialdean, Lopez de Amezketa, Otxoa de Getaria, Oianguren, La Torre, Aginaga, Olazabal eta Elduain bezalakoak aipatzera eramango gaitu.

1303-1466 urte bitartean ditugun mojen 30 izenen artean, 14 dira donostiarrak. Beste 16ak, haien abizen toponimikoei so egiten badiegu, handik kanpo zeuden lekuetan izango zuten jatorria, nahiz eta leinu horien ordezkari batzuk hiribilduan hainbat denbora eramatea posible izan. Donostiarren artean, Bonaza, Igeldo, Landrigger, Lugaritz, Merclin, Ibiñeta, Surubis edo Baires bezalako abizenak ditugu. Beste donostiar leinu batzuek ordea, Bildain, Berrasoaeta, Elduain edo Okendo bezalakoek, XV. mendearen bigarren erdialdetik aurrera izango dute beraien pisua udalbatzan eta horrekin erlazioatua, San Bartolomeko komentuan beraien sarrera ikus daiteke. Baina, bestalde, mojen artean ez dugu XV. mendeko Aginaga, Oianguren, Engomez, Olazabal, Elduain, Zakaio¹⁰¹ edo Estiron bezalako abizenen aipamenik.

Mojen abizenen eta donostiar leinuen arteko erlazioaren inguruan, Ibiñetarrak aipa ditzakegu. Catalina Ibiñeta moja 1436. urtean dugu dokumentatua. Eta ditugun datuei so egiten badiegu, Ibiñeta hauek Donostiako Behe Erdi Aro amaieran nolabaiteko garrantzia izan zutela ondoriozta daiteke.

(100) Ikus TENA GARCÍA, M.^a S., aip. lan., 309, 394, 396 eta 399. orr.

(101) Gure ustetan, 1423ko azaroaren 4ean hil zen, María Juana de Zacata, baliteke Zakaio bat izatea. SARASOLA, M.: “Necrologio del Monasterio de San Bartolomé (1423-1994)”. In: *BEHSS*, 30 Ald. (1996), 668. orr. (665-698).

Martín Martínez Ibiñetakoa eskribaua izango da 1404-1426 urte bitartean; Soledad Tenaren aburuz, Francisco de Ibiñeta alkate izango da 1471. urtean; eta azkenik, 1406ean, San Bizente elizako bikarioa on Iohan Ibiñetakoa zen, zeinak gainera, urte hartan mojen prokuradore bezala ere lan egiten zuen¹⁰².

Komentuarekin erlazioa zuten garrantzizko donostiar leinu hauekin jarraituz, XIII eta XIV. mendeetako Merclindarrak ere aipatu beharko genituzke, 1427. urtean Maria Perez de Merclin moja bezala baitugu. Gogoratu behar dugu Merclindarrek nolabaiteko pisua izango dutela XIV. mende amaieran eta XV. mende hasieran. 1407an Bernaot de Merclin Donostiako alkate badugu¹⁰³, XIV. mende amaieran Juan de Merclin Donostiako “kanpo-ofiziala” izango da. Azken honek oso datu interesgarria ematen digu; hain zuzen ere, momenturen batean eliza eta udalbatzaren arteko interesen elkargune edo bateratzearen isla delako. Gainera, Juan, komentua eta Yeribar etxeko jabeen inguruko auzia konpondu zuen epailetako bat izan zen, eta urte berean (1393an) sor Juliana de Bonazak eginiko salmentan parte hartu zuen lekukoetako bat izan zen. Beraz, komentuarekin nolabaiteko erlazioa zuen pertsona zen eta baliteke Maria Perez moja sartzearen oinarria hor egotea.

Merclin leinuarekin jarraituz, komentuak 1462an Martín Perez de Etxezarretari zentso aldaketa egin zionean, horren etxea Joan Martínez de Merclin harakina eta bere emazte zen María de Riberaren etxearekin mugatzen zela aipatzen da, zeina Etxezarretarena zen¹⁰⁴. Azkenik, Merclindarren kasua San Bartolomeren ondoan edo inguruan bizi ziren familia eta leinuek, edo behintzat jabetzak zituztenek, eliz erakundearekin izan zituztenen erlazioen erakusle izan daiteke; eta beraz, San Bartolomek inguruko lurretan bizi ziren pertsonengan zuen garrantziaren isla dela deritzogu. Frogarik nagusia 1394ko mahastiaren salmentan ikus dezakegu; mahasti horrek Pes de Merclina zen batekin muga egiten baitzuen¹⁰⁵.

Halaber, komentuak hainbat leinu donostiarrekin izango duen erlazioa ondasun emaileetan ikus daiteke, Bonazarrak kasu. 1362 eta 1394. urteen artean ditugu dokumentazioan, lehengo urterako Juliana komentuko priora bezala aurkezten zaigularik. Hauen inguruan ditugun berriek, XIV. mendeko krisiaren aurrean –Getariatarren kasuan bezala?–, hainbat leinu eta familientzako San Bartolome komentua helburu bihur zitekeen eredia izan daiteke.

(102) Ikus LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 45. dok.

(103) Ikus ibidem, 46. dok.

(104) Ibidem, 57. dok.

(105) Ibidem, 41. dok.

Ezin dugu ahaztu krisiari irtenbidea emateko aukera aproposa zela: batetik, leinu horiek komentuak zituen ondasunen ustiaketa edo kudeaketa eginez (komentuari ere interesatzen zitzaiona); eta bestetik, hori lortzeko, familietako emakumeak hara bidaltzea. Hala aho gutxiago zituzten elikatzeko, beste interes joko batzuetan parte hartzeko aukera zuten, guztientzat onuragarria izan zitekeen erlazioa jorratu zitekeelarik¹⁰⁶.

Bestetik, donostiar jatorriko leinu hauen geografia kokapenean jarri behar dugu begirada. Aurreko lerroetan, ondasunen inguruan hitz egiterakoan, komentuak bere begirada Antigua-Berio-Ibaeta inguruan (lehen Artiga izenarekin ezagutzen zena, baina Altzarekin nahastu behar ez dena) jarri zuela aipatu dugu, toponimiaren erabilerak argi adierazten duenez: Markotegi, Balentegi, Loistarain, Amasorrain eta dokumentu batzuetan ikusi ahal izan ditugu Guarnizo edo Faiet abizenak ere horren isla dira¹⁰⁷. Mojekin ere, halako prozesua ikusi dezakegu. Hain zuzen ere, Merclin, Lugaritz edo Igeldo bezalako lekuek zonalde berdineran eramaten baikaituzte. Beraz, argia da San Bartolomeko komentuak Artiga eta Ibaeta inguruko leinu eta orubeekin zuen erlazio estua.

Bonaza abizenari dagokionez eta toponimiari jarriatuz, XVIII. mende amaieran Bonatzategi Altzako elizaren eliztarren artean aipatzen zen eta 1820. urtean Donostiarekin mugatzen zuten altzatar etxeen artean azaltzen da¹⁰⁸; baliteke Bonazarrek Molinao, Pasaia eta inguru haietan komentuak zituen ondasunekin erlazioaren bat gordetzea. Baina ez dugu uste Bonazarrek Altzan jatorria zutenik. Aitzitik, gure ustez, beraiek zonalde horretan ondasunak izatea, beste leinu batzuek bezala, hiribilduak kanpoko lurretan inbertsioak egitearen isla zen. Hau da, errentak eta ohore eta garrantzi sozial bat izateko taktiken ondorio izatea. Gainera, Bonaza eta Merclindarrak XIV. mende amaieran elkarrekin ikusteak, bien arteko gertutasun edo erlazioaz hitz egitera eramán gaitzake. Eta zentzu honetan, ez dugu ahaztu behar gaskoi jatorriko abizen honek XIV. menderako udalbatza donostiarretan ordezkariak zituela:

(106) Domingo de Bonaza lekuko izan zen Juan de Merclinekin batera 1393ko salmantan. Ikus ibidem, 37. dok.

(107) Guarnizo baserria, toponimiari jarraituz, Lugaritz inguruan zegoen eta beraz baliteke, komentuak familia horrek sortutako dokumentazioa gordetzea, baserria beraien eskuetara pasa zelako. Faiet edo Aietarren kasuan, behintzat hala izan zen eta 1744ean Josefa eta Teresa Arozamenta ahizpek, komentuko mojak biak, beraien orduko testamentuan Aiete baserria utzi egin zioten. Ikus LEGORBURU FAUS, E. eta AYERBE IRIBAR, M.^a R. (zuz.), aip. lan., 43. orr.

(108) 1782ko txostenaren arabera. Ikus ROQUERO USSIA, M.^a R.: *La vida cotidiana en Altza en los siglos XVII y XVIII*. Altza, 1997, Altzako Historia Mintegia-Donostia Kultura, 91. orr. XIX. mendeko daturako, ikus: *Estiba*s 3, 2000 azaroa (<http://www.altza.net/pdf/Estiba-s-Altzatarreneguna.pdf>). Bertan, Ubabehea eta Lizardi etxeekin batera aipatzen da.

Martin Bonaza Donostiako hamabi edo juradu izan baitzen 1352. urtean. Baliteke beraz, ondasunak hiribildutik kanpo izatea baina bere barruan beraien etxe eta orubea izatea.

Donostiaz kanpoko jatorria duten leinuen artean, Getaria eta Zarautz abizenak aipa ditzakegu. Lehenengoak 1360 aurrera izango ditugu dokumentatuak. Zarautztarrei dagokienez, María Otxoa 1436. urtean eta Inesa 1436-1462 urte bitartean izango ditugu. Dena den, nahiz eta zonalde gipuzkoar berdinari so egitera eraman gaitzakeen, tentuz erabili beharreko informazioa da, aurreko urteetarako, abizen berdineko donostiarrak dokumentatuak baititugu: Semeno de Zarautz, Donostiako hamabi bezala azaltzen da 1302. urtean eta Domenjon de Zarautz donostiarrari ere, 1339ean udal kargu berdinean egiten zaio aipamena; Getariakoen kasuan bestalde, baliteke Otxoa de Getaria leinu donostiarrarekin erlazioa izatea, nahiz eta badakigun Garcia Getariakoa alkate zela 1379¹⁰⁹.

Eta baliteke, azken hauen ordezkari bat Pelegriana de Getaria izatea¹¹⁰, 1360. urtean komentuko moja bezala dokumentatua dugu eta bi urte geroago, komentuko priore bezala agertuko zaigu. Beraz, XIV. mende erdialdera komentuan sartuko litzatekeela pentsa dezakegu. Leinuak XV. mendera arte gutxienez jarraituko du komentuko bizitzan.

Egia bada Otxoa de Getaria leinu donostiarrarekin zerikusia izan zezakeela pentsatzen dugula, jatorri toponimiko horrek Donostiatik kanpoko jatorria duten mojen inguruko azterketarekin ere erlazioan jartzen gaitu. Hain zuzen ere, batzuk gerora Donostiako elitearekin bat egingo duten leinuen ordezkari baitira, eta baliteke, zentzu horretan, Donostiako botere guneetara hurbiltzearen prozesuaren zati izatea. Nahiz eta argi izan komentuan sartzearekin batera ez zutela ondorengotzarik izango. Oraindik ere, beraien lekua finkatzeko dute-larik eta hiribildu barneko egoera horri hasiera emateko, komentuan ordezkariak izatea erlazio sareak sortzeko balioko zuen: bai inguruko nekazariarekin, bai eliz munduarekin eta baita donostiar eliteekin ere. Prozesu hau gertatzeko, errege eta eliz instituzioek komentuaren egoera finkatzeko emandako bultzadak zerikusi nabaria izango zuen. Bestetik, beste ikuspuntu bat gogoratu behar dugu: hain zuzen ere, komunitate erlijioso hartan, gizarte zibilean mantentzen ziren banaketa eta estratifikazio soziala errepikatu zitekeela eta ondorioz, dina-

(109) LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 34. dok.

(110) Izen honen erabilpenak leinu gaskoietara garamatza eta batez ere, Gomeztarrengana eta ondorioz, Otxoa de Getariarrengana. Ikus TENA GARCÍA, M.^a S., aip. lan., 569 eta 584. orr. Izenen erabilpenerako, ikus AGUINAGALDE OLAIZOLA, Fco. B. de: “La importancia de llamarse Inglesa. Alternativas para la reconstrucción de familias con fuentes documentales no sistemáticas”. In: *BEHSS*, 25 (1991), 91-129. orr.

mika sozial horrek ere, leinu eta familia ezberdinen arteko loturak bideratu zitzakeela, mojen familia ezberdinen arteko erlazioak uztartuz.

Esparru donostiarretik haratago zetozen mojekin jarraituz, XV. mende erdialdean aipatzen diren Gracia eta María Martínez de Markiña ditugu. Hauen inguruan ez dugu daturik, baina badakigu Oñatiko Bidaurreta monasterioan María García eta Francisca de Markiña gasteiztarrak ditugula XVI. mende hasieran (1515-1542)¹¹¹. Eta azkenekoz, XV. mende amaierako Navarra de Lasalde eta Inglesa de Alzoralas aipamen berezia merezi dute, zuzenean Borja Aginagaldek aipatzen ez zuen Inglesa bat delako, baina biek ere ikertzailearen hipotesia islatzen duelako¹¹².

Argi dago beraz, batetik, komentuaren inguruan zeuden orube, leinu eta familiek erlijiosen komunitatea “elikatzen” dutela. Bestetik, kanpoko geografia leku batzuetakoek ere, beraien emakumeentzako San Bartolome kontutan izaten zutela. Honek, botere guneetan txertatzeko baliabide eta prozesuekin erlazioan jartzen gaitu.

Baliteke garrantzi eskasi honek zuzenean udalbatzaren sistema politikoarekin zerikusia izatea eta bereziki, leinu ezberdinen botere banaketarekin. Hain zuzen ere, maila gorenean, edo Jara Fuenteren terminologia aplikatuz, “botere eliteek” beste “sistema” edo botere gune batzuetan beraien begirada jartzea: kontzejuan, kofradietan, edota beste ikuspegi materialista batetik (diru eta, gero, ohorea lortzeko horren bidez egindako ondasun pilaketa), merkataritza eta garraioa bezalako ekonomi jardueretan¹¹³. Hau da, leinu garrantzitsuenen ordezkari garrantzitsuenek, leinuek ere beren baitan biltzen zituzten familia ezberdinen artean zegoen jerarkizazioa kontutan hartuz, ez zuten nahita nahi ez, arlo guztiak kontrolatzeko desioa aurkeztu behar; aitzitik, askotan oso gutxi azaltzen dira botere gune tradizionalen egituretan: hala nola, urte gutxi batzutan udal kargu bakan batzuk betez. Horien eredu Oianguren/La Torre leinua izan daiteke. Udal karguetan gutxi aipatzen badira ere, badakigu XV. mendeko merkataria leinu garrantzitsua zela, haien ordezkari ezberdinen ezkontzek argi uzten dutenez¹¹⁴; zeinak gainera, mende horren

(111) LANZAGORTA, M.^a J. eta MOLERO, M.^a A., aip. lan., 104 eta 134. orr.

(112) AGUINAGALDE OLAIZOLA, Fco. B. de, aip. lan., bereziki, 96-107. orr.

(113) “Botere elite” eta “partaidetza elite”en metodologiarako ikus JARA FUENTE, J.A.: “Elites urbanas y sistemas concejiles: Una propuesta teórico-metodológica para el análisis de los subsistemas de poder en los concejos castellanos de la Bada Edad Media”. In: *Hispania*, 207 (2001), 221-266. orr. Horren aplikazioa egile horren tesian: *Concejo, poder y élites. La clase dominante de Cuenca en el siglo XV*. Madrid, 2000, CSIC.

(114) Haiei buruz, AGUINAGALDE OLAIZOLA, Fco. B. de, aip. lan., 117-124. orr.

hasieran Artiga inguruan lur inbertsioak ere egin zituen; zehazki Tomastegiko lurretan¹¹⁵. Baina ez dirudi komentuarekin inolako harremanik izan zutenik; agian, lur horiek maiztertzan utziz horien ustiaketa lortzen zuten eta maizter horiek izango ziren San Bartolomerekin erlazio zuzena izango zutenak. Edonola ere, Oianguren / La Torre leinuaren kasuak, Jara Fuenteren hipotesiari balioa ematen dio; hain zuzen ere, botere eliteen interes jokoarena eta beraien pisua ez zela beti udal karguetako parte hartze zuzenean ikusten edo horrek ez duela leinuaren benetako garrantzia adierazten.

Guzti honek leinu ezberdinen botere banaketa eta kontrolarekin bat datorrela uste dugu. Jakina, eliz sistema ez da interes horietatik aldentuta egongo; aitzitik, berak ere osatuko du leinu horien biziraupen eta finkapenarentzako helburu bat: Zakaiotarrak nahiko adibide esanguratsua dira. Leinu interesgarri honek ez du dokumentazio handiegirik utzi edo sortu eta udal ofizioetan ere, nahiko eskasak dira haien aipamenak. Baina badakigu San Martingo ospitalearekin erlazio estua izan zutela eta XV mendearen erdialdean hiribildu barnean ospitale bat sortzeko agindua eman zutela¹¹⁶. Eta berdin ikus dezakegu hiribilduko leinu garrantzitsuenek Andre Maria eta San Bizente elizek zuten eliz kabildu bateratuan.

Zentzu honetan, Soledad Tenaren aburuz, Donostia, Erreterria eta Hondarribiko hiribilduetako leinu garrantzitsuenek oso erlazio estua izan zuten eliz jurisdikzioarekin; azken honen eta jurisdikzio zibilaren artean sortutako tirabirak, zalantzak eta konpetentzien inguruko liskarrak zirela eta. Hala, eliz munduko kargu ezberdinek zuten garrantzia eta sozioekonomikoki beraien leinuek zutena berdinak ziren¹¹⁷. Hala, leinu horietako bigarren maila batean zeuden bigarren semeak izango lirakeke kargu horiek bete zituztenak¹¹⁸.

(115) Ikus AMSMVA, 5, 352 (1421. urtea) eta 5, 353 (1419. urtea). Lurrek, besteak beste, Amasorraingo mendiak egiten zuten muga eta hainbat abizen eta toponimoek, Artiga zonaldeari ere egiten diote erreferentzia: 1419an, udalbatzak Unanuen zituen lurra aipatzen dira; Lope Markotegi, ondoan dauden lur batzuen jabe bezala azaltzen da eta lekukoan artean Juango Balentegi dugu.

(116) Eta baliteke beraiek Pasaiaiko Santiago familiarekin izandako erlazio estuaren bidez, San Martingo patroitzak azken horien eskuetara joatea. Zakaiotarrak San Martingo ospitalearekin zuten erlazioa XV. mende hasieratik dator, gutxienez. Ikus AMSMVA, 5, 352, non Iohan Miguel Zakaiokoa, ospitaleko administratzaile bezala aipatzen den.

(117) TENA GARCIA, M.^a S., aip. lan., bereziki, 286-287. orr. Gure ustez, prozesu hau argiagoa da XV. mendearen bigarren erditik aurrera, aurreko mendeetan baino. Jararen botere eliteen inguruko hipotesiak baieztatuko lirakecelarik. Gure ustez, aurreko titularrak leinu garrantzitsuenen barnean egonda ere, horien artean maila apalagoetan zeuden pertsonak ziren. Dena den, kasu honetan, egilea hiribilduan zeuden elizen inguruan hitz egiten du eta ez gure komentuaren kasuan.

(118) Ibidem, aip. lan., 395, 398 eta 399 orr.

Garrantzitsua deritzogu oraindik XIV. mendean donostiako oligarkia bere hastapenetan denaren edo finkatze prozesu batean dagoen ideia mantentzea; behinik behin, gerora Soledad Tena Engomezarrei emandako zentralitatea garatzeko dago. Eta agian, hastapen horietan, San Bartolome komentuak nolabaiteko bigarren mailako leku bat zuen. Hain zuzen ere, leinu garrantzitsuenek beste botere batzuetan begirada jarrita zutela. Baliteke orduan, Jara Fuenteren elite eta botereen inguruko teoriaren sor-kuntzari jarraituz, komentua beste leinu eta giza esparruentzako erakargaria izatea eta ez ordea, hiribildua eta udalbatza kontrolatzen zutenentzako edo pisurik nabarmenena zutenentzako. Hain zuzen ere, azken horiek ez zutela askotan aurkeztu den botere gune guztiak kontrolatzeko desio geldiezina aurkeztu behar. Honek “botere elite” eta “partaidetza eliteen” jokatibidearekin erlazioan jartzen gaitu.

Hasiera batean, mojen eta ondasunen zerrendak adieraz dezakeenez, badirudi donostiar bizitza politiko eta ekonomikoa kontrolatzen zutenekin alderatuz, bigarren mailako familiek osatzen dutela komentuaren erlazio hori. Hain zuzen ere, hiribildutik urrun zeuden lur horietan lan egiten zutenekin. Eta honek Jara Fuenteren teoriaren isla izan daiteke. Ikusi ahal izan dugu komentuak Donostiako udalbatzarekin XIII. mende amaieran eta XIV. mendean bizitako tirabira batzuk. XV. mende amaiera arte izango ez ditugunak, testuingurua zein den argi dagoelarik. Honek, ideia nagusi bat adieraz dezake: leinurik garrantzitsuenek ez zutela San Bartolomerengan kompetentzia handiegirik ikusten. Baina dena den, ez ditugu ordezkari ezberdinak gutxietsi behar. Merclin eta Bonazatarrekin izandako erlazioak hiribilduko leinu nagusienekin nolabaiteko kontaktuan jarriko zituela adieraz baitezake, hala interes talkarik egongo ez zelarik; eta zentzu honetan, komentuaren ondasun politika eta portaerak ideia hori finka dezake: hiribildutik kanpo eta urrun zeuden lurretan beraien begirada jartzea hain zuzen ere. Gerora ere, Martin de Añorgaren kasuak argi adierazten duen bezala. Añorga orubeko jauna zen honek, bere burua komentuan ehorztea erabakiko baitu 1657an¹¹⁹.

(119) LEGORBURU FAUS, E. eta AYERBE IRIBAR, M.^a R. (zuz.), aip. lan., 28. orr.

III Taula: San Bartolomeri hainbat estamentutan egindako emakida eta legatuak (1362-1532)¹²⁰

Pertsona	Urtea	Legatua
Arnaut Bonaza	1362-I-4	Zurriolako errotaren 1/8, urtean 4 meza erreztzeko eta beste bat en el cuarterón
Martín Gomis	1362-VII-30	50 marai, obrarako
Pedro de Igurrola	1488-1491	6 blanka
Miguel Martínez de Engomez	1491-VI-15	60 blanka elizari 10 ardite moja bakoitzari, bere arimagatek erreztzeagatik
María Perez de Aginaga	1491-VIII-11	20 blanka, obretarako
Anton de Igurrola	1499-I-5	10 marai, obretarako 10 marai, bere arimagatek erreztzeko
María Juan de Bulazia	1503-X-30	Txanfoi 1, obrarako
Martín Martínez de Isturizaga	1520-V-3	Dukat erdia 50 dukat, bere eta Catalina de Faiet bere emaztearen arimarengatik betirako ofizio bat erreztzeko.
Valentin de San Sust	1523-III-24	dukat 1
Miguel Otxoa de Olazabal	1523-VI-4	dukat 1 mojek bere arimagatek erreztzeko
María Perez de Zaldibar	1524-IX-3	Erreal 1, gatibuentzako
Pelegriana de Aginaga	1523-X-21	Urrezko dukat 1
Miguel Lopez de Berrasoeta	1532-III-17	2 dukat, komentuari 2 erreal moja bakoitzari, zapata pareta erosteko.
Navarrina de Bildain	1532-IX-29	Erreal 1, beharretarako Zorrak ordaindu ondoren sobratzen den dirua María Pérez de Illunbe moja eta Domenja de Iurmendi bizilagunari.

(120) Taularen arabera ateratako ondorioak behin-behinekoak direla ohartu behar dugu. XVI. mende hasierako testamentuek irizpide zehatzik ez dutela adierazi nahi dugu. Auzi ezberdinak kontsultatzerakoan aurkitu ditugunak dira eta alde horretatik, baliteke etorkizunean San Bartolomeri erreferentzia gehiago egiten dizkietenak topatzea. Testamentuek iturriak: Martín Gomisena: MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; MARTÍNEZ LLORENTE, F.J., aip. lan., 293 dok.; Miguel Martínez de Engomezaren laburpena: LANDA IJURKO, I.: “Engomezarren jabetzak La Herreran”. In: *Altza, hautsa kenduz*, V (1999), 167-171. orr. (141-176) (<http://www.altza.info/pdf/ahk5/14-Landa.pdf>); Arnaut de Bonazaren testamentuaren sarrera, amaiera eta legatua: LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 32. dok.; María Perez eta Pelegriana Aginagaren testamentuak AGG-GAO LCI 0; Pedro eta Anton Igurrolaren testamentuak, ARChV. Civiles. Zarandona y Balboa. Olvidados, 1340-1; Miguel Otxoa de Olazabal eta Miguel Lopez Berrasoetakoaren testamentuak, ARChV. Civiles. Masas. Fenecidos, 2097-4; Valentin de Sansustena, ARChV. Civiles. Quevedo. Olvidados, 24-2; María Juan Bulaziarena, AGG-GAO CO MCI 26; María Perez de Zaldibarrena, AGG-GAO LCI 4; Navarrina de Bildainen testamentua: AGG-GAO CO MCI 43; Martín Martínez Isturizagakoarena: AGG-GAO CO MCI 48.

Komentuaren garrantzia ikusteko, testamentuak aztertzea ere garrantzitsua da. Aurreko larroetan aipatu dugu komentuak jasotako ondasun ugari, testamentuen bidez lortu zituela. Baina bestetik, badakigu XV. mende amaieran, 1489 urte inguruan, Doña Maria Gartzia de Guarnizo andrearen testamentariak zirela eta berdin, XVI. mende hasieran, Pedro de Arratzain eta María Pérez de Torranorenak¹²¹.

Baina beste testamentuen inguruan ditugun datuek, argi uzten dute, leinu garrantzitsuenentzat edo XVI. mende hasierararte iritsi zaizkigunak ikusiz, bigarren mailakoa zela. Emakida eta legatu ezberdinetan San Bartolome komentuak pisu askorik ez baitu; legatu gehienak orokorrean hiribilduko eta inguruko elizekin batera egiten direnak baitira.

XVI. mende erdialdean Navarrina de Bildain eta Martín Martínez Isturizagak eginikoak aipa daitezke. Hauetan ere, baliteke familia loturek zerikusia izatea edota komentuaren inguruan zeuden familiek erakunde erlijiosoarekin zuten erlazioarekin.

Batetik, Bildain abizena zuen moja bat dokumentatua baitugu 1466. urtean. Agian, bi emakume horien inguruko erlazioan ikus dezakegu gerora Nabarrinak berak María Perez Ilunbekoarekin izan zuena, lehengoaren testamentuan, azkeneko honi 2 dobloi uzten baitzizkion, “en premyo de los trabajos que le he dado e doy e porque tenga cargo de rogar a Dios por my anyma”; bere arimarentzako jasoko zuenaz aparte. Baina garrantzitsuena, Nabarrinak María bere testamentarietako bat izendatzen zuela da¹²².

Bestetik, Isturizagak eginiko legatuen zergatia bere emaztearekin lotu behar dugula uste dugu; Catalina de Faiet/ Aieterekin, hain zuzen ere. Azken abizen honek zuzenean komentuaren inguruko lurretan zegoen izen bereko orubera baikaramatza; gerora komentuarena izango dena¹²³.

Martin Gomis eta Miguel Martínez de Engomez-en kasuak oso aipagarriak dira. Batetik, beste legatuekin alderatuz, diru kopuru dezente ematen baitiote komentuari eta bestetik, ez dirudielako komentuarekin inolako tratuerik egiten dutenik. Hemen, hainbat aldiz aipatu dugun erlijioaren pisuan aurki dezakegu azalpena. Gainera, Martin Gomisek testamentua eginiko urte berean eta bi urte lehenago komentuak hainbat donostiarrengan zuen eragina ikus dai-

(121) LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J.A., aip. lan., 67 eta 94. dok.

(122) AGG-GAO CO MCI 43. Bestetik, Mariaren abizenak komentuaren ondoko lurrei ere egiten die erreferentzia, bai Amaran eta baita Lugaritzen ere, izen bereko etxola bat baitzegoen.

(123) AGG-GAO CO MCI 48.

teke eta 1351. urtean hamarrenen pribilegioa baieztapena lortu zuen. Beraz, garrantzia izaten ari zen erlijio puntu batez ari gara eta ondorioz, hil ondorengo bizitzan Jainkoaren mesedea eskuratzeko aukera aproposa. Inguruko eliz eta komentuetako sarearen barnean zegoen beste erlijio puntu bat kontutan hartuz.

Dena den, San Bartolomeren garrantzia, garai honetarako ez dugu balioetsi behar. Adibide batzuek, Artiga inguruko leinuek ez zutela zergatik komentuekin erlazio esturik izan beharrik adierazten digute. Hala ikus daiteke Miramon maiorazkoaren sorreraren inguruan kontserbatutako XVI. mende hasieko testamentu eta idatzi ezberdinetan. Hauek lortura estuagoa baitzuten San Sebastian elizarekin, komentuekin baino¹²⁴.

Baina 1466tik aurrera eta Erdi Aroa bere amaierara iristen ari zein heinean, donostiar jatorriko mojek osatzen duten gehiengo argiagoa dirudielako da; hau da, ordutik, komentua donostiarrentzako eta hiribilduko elitearentzako nolabaiteko interesa piztu zuela, Aro Modernoan argi geratzen denez¹²⁵.

Azkenik, eta lehen priore eta serorek zuten pisua aipatu badugu, zer esan dezakegu, kargu hauek bete zituzten emakumeei buruz?

Prioreari dagokionez, hasiera batean nafar jatorriko mojen bat ikusi badaitte ere, Getaria, Bonaza eta Puerto abizenak ditugu aipagarrienak. Pelegriana Getariakoa priora izango dugu 1362. urtean eta, Catalina Gartzia Getariakoa 1489tik. Juliana de Bonaza aldiz, 1393an kargu horretan aipatzen zaio. Azken honek serorekin lotzen gaitu. Hain zuzen ere, bera 1362. urtean izan zelako. Kargu honetan, 1436ko Bartolomea de Lugariz aipatu beharko genuke, eta baita 1462ko Osana de Gabiria eta Gracia de Azkonobieta.

Datu eskas hauek ezin digute ondorio zehatzik eman eta beraz, behin-behinekoak izan behar dute, nahi eta nahi ez. Eta hauek, Bonaza leinuak komentuekin zuen erlazio estua ematen digute. Halaber, Lugaritz abizenak, Ierro hauetan zehar hainbat aldiz aipatutako komentua eta inguruko lurretan bizi zirenen arteko erlazioa berrestea garamatza. Baina baita, Donostiar jatorritik kanpoko leinuen ordezkariena; Magdalena de Mendaro prioreorde izango bada 1492an, 1523an priorea dugulako. Bestetik, XV. mende erdialdeko Maria Lantzek, nafar jatorriko moja batzuen pisua adieraz dezake.

(124) Dokumentuak, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa - Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa, P 3/910 sortan ikus daitezke.

(125) LEGORBURU FAUS, E. eta AYERBE IRIBAR, M.^a R. (zuz.), aip. lan.

Ondorioak

Argi dago erakunde erlijiosoek eta eliz karguak botere gune interesgarria zirela leinu eta familia ezberdinentzako. Baina horrek ez du esan nahi, beti ere, ekonomikoki, politikoki eta gizarte mailan pisurik nabarmenena zuten familiariek beti ere guzti horietan ordezkariak (zuzenak izan ala ez) izan zituztenik eta hala ikus daiteke San Bartolomeko komentua kasuan. Baina ordezkari garrantzitsuenentzat lehen mailako gunea bihurtu ez bazen ere, Donostiako oligarkia osatzen zuten kide batzuentzako erakargarria izan zela onartu behar dugu, hala nola, Bonaza eta Merclin leinuentzako; eta testamentuetan utzitako emakidek argi uzten dutenez, nahiz eta bigarren mailakoa izan, donostiarren eskema erlijiosoetan lekua ere bazuen.

Gehienbat, komentua inguruko lurretan bizi zirentzako erreferentzia erlijioso nabarmena izan zen: XIV eta XV. mendeen artean, bereziki, Artiga (Antigua-Berio-Ibaeta) inguruan bizi zirentzat. Eta ideia hau argi geratzen da jabetzetan, hainbat mojen abizenetan eta, adierazgarriagoa dena, hainbat testamentariak lortzerakoan. Honen zergatian, oinarri geografiko eta fisikoen eragina nabarmena izan zela uste dugu. Batetik, hirildutik aldentuta zeuden lurak zirelako; bestetik, urruntasun honetan ere, Urumea eta Añorga ibaiek eta itsasoko mareek eragin handia izan zutelako. Inguru horiek padurak baitziren eta ihidiz betetakoak eta itsasgora izatean, lur horietako asko ur azpian geratzen zirelako, komunitate horiek nolabaiteko isolazioa pairatuz. Hain zuzen ere, hiribilduarekiko zegoen urruntasuna azpimarratzen zen. Egoera honetan, erlijioaren papera Donostiatik kanpo baina inguruan zeuden beste erakunde batzuek betekoz zuten: hala nola, San Sebastiango eliza eta San Bartolomeko komentua.

Bestalde, komentua inguruan kokatutako lur eta pertonekin izandako loturek, hiribilduarekin izandako erlazio baketsuak argitu eta azaldu ditzakete. Gune horretan, nahiz eta hiribilduaren zati izan eta erlazio politiko-ekonomikoak mantendu, udalbatzarentzako interes gutxi zuten lurak zeuden. Beraz, ez zegoen interes berdinen arteko talkarik eta ondorioz, ez zen arazorik sortzen. Honek dena den, ez du nahi erlazioak beti baketsuak izan zirenik. Baina nahiko esanguratsua da XIII. mende amaieran eta XV. mende amaieran eta XVI. mendearen hasieran ematea, tartean arazoengatik daturik ez dugularik. Hasierako datek komentua hasiera eta finkapena dakarte eta beraz, normala da hiribilduak beregandik nahiko gertu sortzen ari zen erakunde baten inguruan errezeloa sortzea. Errezelo honek San Bartolomeko eragozpenak sortzea ekarriko luke; hala, komentua eskuratutako lehen ondusunen inguruan ditugun datuak argitzen direlarik: hauek Donostiatik kanpo egotearen arrazoia, alegia. XV. mende amaieran eta XVIeko hasieran sortu-

tako auziek, Donostiaren testuinguru politiko-ekonomikoarekin erlazio zuzena dute eta gainera, komentuekin izandako eztabaidak hiribildu barnean zeuden ondasunen inguruan izateak, argi adierazten du berreraikuntza prozesuarekin lotutako arazoa zela.

Azkenik, eliz gizonekin ere arazoak bizi izan zirela ohartu beharra dago. Eta hau ikuspegi erlijioso-ekonomiko batetik ikusi behar dugu. Hain zuzen ere, eliztarrak eskuratu eta mantentzearen inguruan; zenbat eta gehiago eskuratu, eliz-errentak ere gorantz egiten baitzuten.

I. Eranskina:
San Bartolome Komentuko moja eta erlijiosen zerrenda (1303-1492)¹²⁶

	1303	1312	1318	1342-46	1360	1362	1393	1418	1427
Priorea			Peitona X	Maior Ramirez de Makiriain		Pelegriana de Getaria	Juliana de Bonaza	Mencia del Puerto	
Diruzaina								María Juan de Lana	
Elizaina	María Juan X	Teresa Díaz				Juliana de Bonaza			
	Teresa X	Teresa Eziazo							
Mojak					Pelegriana de Getaria				Catalina de Askizu ¹²⁷
									María de Merlin
									Bartolomea de Lugaritz
									María Otxoa de Oikina

(126) Nahiz eta dokumentazioan ez ageri, badakizkigu beste moja batzuen hiltze datak: 1423-XI-4: María Juan de Zacaeta [sic Zakaio]; 1462-XI-18: Sancha de Orbe; 1500-VII-9: Agustina de Tolosa. Ikus SARASOLA, M., aip. lan.

(127) Magdalena de Mendaroren izeba. Kondariak dioenez, 120 urte zituela hil zen. Ikus *Colección de documentos inéditos*. ... aip. lan., 123-124. ort.


	1436	1448	1462	1466	1489	1492
Priorea	Mencia del Puerto		Maria de Izeta		Catalina Gartzia de Getaria	Catalina Gartzia de Getaria
Prioreordea						Magdalena de Mendaro ¹²⁸
Giltzaria						Estebanía de Okendo
Diruzaina	Bartolomea de Lugaritz		Osana de Gabiria		Mayora de Berrozpe	
Elizaina	Maria de Lanz		Gracia de Azkonobieta			
Mojak	Maria Otxoa de Zarautz	Gracia Mnez. de Markiña	Gracia Mnez. de Markiña*	Gracia Mnez. de Markiña	Catalina de Berastegi	
	Pelegriana de Getaria		Catalina Gartzia de Getaria	Catalina Gartzia de Getaria	Peirona de Markiña	Peirona de Markiña
	Catalina de Askizu	Catalina de Askizu*	Catalina de Askizu	Catalina de Askizu	Estebanía de Okendo	Juana de Okendo
	Maria Pérez de Izeta		Joana de Córdoba		Magdalena de Mendaro	

(128) Priorea 1523an. Ikus AGG-GAO CO MCI 95.

	1436	1448	1462	1466	1489	1492
Mojak	María Pérez de Merclín		Domenja de Landríguer	X de Meila	Gracia de Arteaga	
	María Otxoa de Oikina	María Otxoa de Oikina*	María Otxoa de Oikina	María Otxoa de Oikina	Catalina de Berastegi?	
	María de Santander		Catalina de Baires	X de Bildain	Gracia de Agirre	
	María de Azkonobieta		María Martín de Igeldo	María Gasteiz de Hermani	Estebanía de Salvatierra	Estebanía de Salvatierra
	Catalina de Barrundi			María Martín de Berrasoeta	Teresa de Lerzur	
	Teresa de Sasiola		Navarra de Lasalde	Navarra de Lasalde	Inglesa de Alzorales	Inglesa de Alzorales
	Catalina de Ibiñeta			Teresa de Aierdi	Domenja de Villafranca	Domenja de Villafranca
	María de Markina			Juana de San Sebastian		María Pérez de Berrozpe
	Inesa de Zarautz		Inesa de Zarautz	María de Lanz		Teresa de Irkadi?
	Osana de Rekondo			María Pérez de Getaria		María Juan de Agirre

II. Eranskina:

San Bartolomerekin erlazionatutako Donostiar toponimoen kokapena



SB: San Bartolome

1. Amasorrain
2. Balentegi
3. Faiet / Aiete
4. Guarnizo
5. Loistarain
6. Lugaritz
7. Markotegi
8. Merlin
9. Tomastegi

* Ez dira urte horietan aipatzen, baina aurreko eta ondorengoetan bai, eta beraz, horietan ere komunitatearen kideak izango ziren.